



# ttipi-ttapa



OIHANGINTZA GEHIGARRIA / 27



## BERARI BURUZKO GORDAILURIK HANDIENA HERRIARI EMATEKO PREST

Rosa Mari eta Jose Antonio Errandonea anai-arrebek 1979az geroztik Berari buruzko argazki, historia eta prentsan ateratako albisteak bildu dituzte. Kanpoko argazkiak ateratzeari utzi diote, baina urte luzez bildutakoa ordenatzen ari dira orain. / 8


## Memoriaren alde eginikoari aitortza

Euskal memoriaren alde egindako lanagatik Sabino Arana Saria eman diote Amaiurko Gaztelu Elkarteari. / 37


### SINADURAK




ZOZKETA / 56



**Unai Zabaleta  
Karrape Irratiko  
esatariarekin  
kontu-kontari** / 10



**Beñat Iantzi eta  
Aritz Arrieta  
GKSkoko kideak  
koordinadoraz** / 20



**Pello Iriarte  
Irruritako alkateak  
herriko kontuak  
azaldu ditu** / 38

## BIRZIKLATZEKO ESKULIBURUA

Ekonomia zirkularrean, birziklatzen duzunean, hondakinak baliabide berri bihurtzen dituzu.



Birziklatu gehiago. Hobeki. Beti



### EDUKIONTZI HORIA



PLASTIKOZKO ONTZIAK



METALEZKO ETA BRIK ONTZIAK



**EZ DOAZ EDUKIONTZI HORIAN**  
Pixoihalak, jostailuak edo ontziak ez diren plastikozko beste objektu batzuk



IGLU BERDEA



BEIRAZKO ONTZIAK



EDUKIONTZI URDINA



KARTOIZKO ETA PAPERAZKO ONTZIAK



ERREFUXA EDUKIONTZIA



GAINERAKO HONDARRAK



EDUKIONTZI MARROIA-KONPOSTAGAILUA



JANARIAREN EDO BESTELAKO HONDAKIN ORGANIKOEN HONDAKINAK



## BERA LESAKA

# Agenda 2022

OTSAILA



[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)



LESAKAKO UDALA

### MARGO ERAKUSKETA OAlA PERUARENA

Larunbat eta igandeetan  
16:00-20:00 Ikastolako areto nagusian  
Antolatzailea Labiaga ikastola



BERA

### 12 eta 19 LARUNBATA LANDAKETA ARBOLAREN EGUNA

Informazio gehiago [www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)  
Antolatzailea Beti Gazte elkarte



LESAKA

### 12 LARUNBATA AZOKA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA

10:30-13:30 Beralandetan

BERA

### 12 LARUNBATA EKITALDIA LUJZ, MUSICA Y ACCION (SUAKAI)

18:30 Kultur etxean  
Sarrera 8 € (sarrera aitzinetik Agara prentsan salgai)

BERA

### ISIDORO FAGOAGA: ENTZUNALDIAK

### 15 ASTEARTEA KLARINETE, SAXOFOIA, TXIRULA ETA TRONBOI ENTZUNALDIA

18:00 Kultur etxean

BERA

### 17 ORTZEguna GITARRA ENTZUNALDIA

18:00 Kultur etxean

BERA

### 20 IGANDEA KULTURA ZINEMA HARRIONDOAN

17:00 Harriondoa Kultur Etxea  
Antolatzailea Irain Eskola eta Tantiurmiaru ikastolako guraso elkarteak

LESAKA



### 20 IGANDEA ANTZERKIA TRAPU ZIKINAK (LORE MORE)

17:30 Kultur etxean  
Sarrera 4 € (sarrera aitzinetik Agara prentsan salgai)

BERA





NIRE TXANDA

IZASKUN IGOA JAIMERENA

## Dolu bat bizimodu

Jendartean bizi dugun garaia dolu handi baten igualtsua da. Bueno, ez dut uste dolu ttipirik badenik, norberak daki bere zenbat okupatzen duten. Dolu bat bizi dugu galdu dugun bizimoduarekin. Dolua gure ohiturekin, dena egiteko genuen manierarekin; harremanak izateko formekin, besarkatzeko, musukatzeko, espazioak konpartitzeko, munduan izateko eta egoteko molde propio eta kolektiboekin. Eta doluak dituen fase horietan guztietan gabilta buelta eta buelta, aitzin-gibel batean. Ukapena, haserrea, batzuek onarpena, buelta aitzinekoetara eta segi. Sufrimenduzko momentu honetan, aitzineko bizitza eskainiko digun edozer onartuko ote dugu?

**«DOLUAK DITUEN FASE HORIETAN GABILTZA BUELTA ETA BUELTA»**

Kasu egiteko garaia da dolua; falta dena berreskuratzeko obsesioan egin ditzakegun gauza ez onargarrietz adi egotekoa, emozio pisu eta etorkizuneko beldur konpartituei kasu egiteko garaia ere. Elkarganatzekoa, elkar goxatzekoa. Isiltasuna eta mintzatzearen artean modu berrian jostatzekoa; barnak hustekoa eta ahal den neurrian, bai barnean, bai kanpoan, ilusio pixka bat ereitekoa.



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Neguko soinuak

Joareen pulunpak aditu ditugu gurean, bi urte eta gero. Europan, gerra-danbor hotsak hedatzen ari dira Ukraina aldean, baina Espainian garaipen-turuta doinuak zabaldu dituzte, Nadalen 21. Grand Slamarekin. Halere, pandereta soina ere ezin itzali hispanoek, Benidorm Festetik Eurovisionerako bidea kongresutik igarotzea nahi baitute.

## NABARMENTZEKOAK



ELIXABET  
BADIOLA  
DONAMARIA



OINATZ  
BENGOETXEA  
LEITZA

Donamarian bizi den Elixabet Badiola Leon idazle donostiarrak *Antes de la última casa* liburua argitaratu du. Ilbeltzaren 28an Donezteben aurkeztu zuen.

Leitzako pilotariak ilbeltzaren 29an jokatzekoa zuen profesioletako bere azken agurra Labrit pilotalekuan. Baina lesio bat tarteko, atzeratu behar izan zuten. Otsailaren 26an izanen da.

## ATZERA BEGIRA



2012-02-09 · TTIPI-TTAPA · 559 zk.

## Nafaa Salem sahararrarekin

Tindufeko errefuxiatuen kanpamentua utzita etorri zen Nafaa Salmen sahararra gure artera. Duela hamar urte Doneztebe zuen bizileku eta sahararrak «lau zatitan banatuta» bizi direla zioen: «batzuk Marokoren menpe Sahara okupatuan; bertze zati bat liberatutako eremuetan; Marokoren inbasioetatik ihes eginda-koak errefuxiatuen kanpamentuetan eta bertzeak kanpoan». Sahararren errealitatea salatu zuen, «zanpatuak» bizi direlako. «1975ean Maroko sahararrak bonbardatzen hasitakoan, nazioarteko komunitateak ez zuen deus erran. Eta guri, zanpatuoi, zerbait egitea tokatu zaigunean, terroristak erraten digute. Armeekin okupatu gintuzten, erdiak hil, milaka umezurtz eta milaka ezindu utzi... Ezin dugu min gehiago jasan, borrokan segitu behar dugu».

ttipi-ttapa

erran.  
eus

TOKIKOM

**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,  
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberría.

**Fundazioaren Presidentea**  
Pello Apeztekoa  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia  
**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte  
**2022ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi  
eta Malerrekako 42€  
Leitza 33€  
Hego Euskal Herria 50€  
Ipar Euskal Herria, Europa 98€  
Amerika eta Australia 147€

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

mecna

BAZTANGO EUSKARA ZERBITZUA

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA



## KOLABORAZIOAK

MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

## Kantuz

Ilun dago Iruñeko zero zabala; ordu pare bat eskas eguzkia gorderik mendien gibelean. Ttipi-ttapa, Parte Zaharreko karrika estu bateraino ailegatu dira gure pausoak. Ez gaude bakarrik, lehendik bai baitziren bertan, eta gure ondotik ere etorriko dira bertze batzuk. Aurpegi osoa ez diogu ikusten elkarri, baina begiak irakurtzen ere ikasi dugu. Nerbioak etxean utzi ditugu eta kontent gaude. Etxe zaharreko ate handia ireki dute, eta barrenera sartu gara hogeit bat lagun. Historia bat eta hamaika istorio gordetzen dituen txokoan gaude. Leihoa eta atea zabalik utzi ditugu nahita, eta haize hotzari ongietorri egin diogu broma artean. Itxi gabeko borobilean jarri gara, bakoitzak berak lehendik dakien tokian, ordenak emanen dizkigun gidariari begira denok. Hasi baino lehen gorputza nola laxatu erakutsi digu; yoga edo gimnasia saio bat izaten ahal zen, baina ez da. Boza berotzen ere hasi gara, ez baita komeni kolpean deus bortxatzea eta horretan arituko baikara: musikaz jauntziriko hitzak aireratzten. Gehienbat Iparraldeko kantak. Irakasle zuberotar gazteak bere lurreko altxorretik bereizten dizkigu, baratzeo fruituak saskian paraturik gure begietara agertzen dituen laboraria balitz bezala: *Bedatsearen heltzean, Bortüetako elhürra, Ekialde, Gerezitzeak lilitan, Irustarzüna, Jondane Johane,*

*Oihaneko zühainetan...*

«**BERRIZ HASI GARA KANTUAN ETA HALA SEGITU NAHIKO GENUKE**»

Saiatzen da guri erakusten solas bakoitza nola erran behar den. Kanta ongi konprenitu behar dugu eta mezua sentitu. Tarteka errieta ere egiten digu, behar bezala kasurik egiten ez diogula uste

badu. Kostako zaigu ikastea zuberotarrek bezala kantatzen. Baina gure aldetik gogo eta borondate faltarik ez. Txoko honetan trebatzen gara, baina gero kanpoan aditu behar digute. «Bestela, zertarako ari gara?», galdetzen digu irakasleak. Eta aitzin horretan, egun batean atera gara gure zulotik kanpora; Iruñe zaharreko karriketan barna ibili gara kantari. Jendea ondora etorri zaigu, zerbaiten gose nik uste. Giro polita sortu da. Haren ondotik, gure betiko aterpean juntatu garen hurrengo aldian, solas egin dugu geure artean. Maria Luisa kantulaguna medikua da, eta badaki: «Ze poza ageri zuten guri aditzera gelditzen zirenek! Jendeak honelako gauzak behar ditu... eta guk ere bai!». Denbora luzea eman dugu isilik, kezka eta beldurrez, eta elkarrengandik aparte. Orain berriz ere hasi gara kantuan lagun taldean, eta hala segitu nahiko genuke, maskararekin bada ere. Kontuz, baina kantuz.



MIREN RUBIO ITURRIA

## Zein garestia den heriotza

Hilkutxa, auto egokitua, beilatokia, loreak, eskelak, langileak... Heriotza aski garestia da, baita ekonomikoki ere: 3.500-6.500 euro arteko kostua du hileta arrunt batek, Estatuko Kontsumitzaileen elkartearen arabera. Eta gastu hori ez da apeta hutsa, edo hautu bat. Erabat beharrezkoa den gastu bat bazik.

Pandemia honek ederki oroitarazi digu hori: zein inportanteak diren normalizat jo izan ditugun heriotzari lotutako ohiturak. Senideren bat pandemiaren makurrenean hil zaionak badaki zenbatekoa den bakardadearen zama. Errituak dolua egiten hasteko bideak bertzerik ez baitira, eta denok behar ditugu, molde batekoak zein bertzeoak, kolektiboki konpartitu: denok behar dugu toki txukun bat hildakoa agurtzeko, lore zein bertzelako oroigarriak, norberari egokitutako zeremoniaren bat, kafe bat, kantu bat... Norbere sinesmen eta nahien arabera. Eta halako egoera batean, gainera, ez bada hildakoak espresuki kontrakoa erran duela, ohituratzat jo den hori egiten dute senideek. Eta beraz, hortxe azaltzen da, ohikoa den zeremonia eta ohikoa ere baden faktura. Pobre izan edo aberats.

Alargun bati behin entzun nion nola, bere pentsioa

lotsagarria izan arren, gordeta zituen lau sosak senarrari 'merezitu zuen' hileta egiteko erabili zituela. Eta geroztik ezin dirurik aurreztu zebilela. Senideei halako 'gastua' uzteko beldurrez, bada heriotza aseguru ere

egiten duenik (horretarako ere dirua behar da, ordea). Eta zenbat horrelako.

Heriotza bizitzaren parte den neurrian, nekez egiten dio inork eskapo heriotzari. Gaixotasunari bezalaxe. Eta hala izanik ere, kontu pribatu gisa tratatzen dugu, *eszepzionala* balitz bezala, norberak bere poltsikoaren arabera neurtu beharrekoa, *zeremoniatu* beharrekoa.

Denoi eragiten digun heinean, ordea, denon eskubide beharko luke. Heriotza duinak ere beharko lukeelako bizirik daudenen eskubide. Eta, horrexegatik, heriotzari lotutako ohitura eta behar guztiak unibertsalizatu, hau da, publikatu beharko lirarteke. Denon eskura paratu 3.500 euro horiek, pobre izan zein aberats. Heriotzak berak gizaki guztiak berdintzen gaituen moduan, heriotzak berak bizirik daudenen artean diferentziarik sortu ez ditzan. Batzuentzat bertzeentzat baino garestiago ez dadin izan heriotza. Berriz erranen dudalako: heriotza ez delako inoren hautu edo kapritxo bat. Horregatik, osasunak izan beharko lukeen bezala, maite ditugunei ere duin eta ongi agur errateak denon eskura izan beharko lukeen aukera bat beharko luke. Dirua ez dadila agurraren neurria izan.



## 11 GALDERA LABUR

RUBEN PEDROSA ARTXILA ESKALADA TALDEKO KIDEA

## «Artxila epe luzerako proiektu bat izatea espero dugu»

Berako Zalain industriagunean dago Artxila Eskalada Taldearen Rokodromoa. 2020ko abenduan sortu zuten elkarte, eta Ruben Pedrosa da bertako lehendakaria.

**Aurkeztu zure burua. Nor da Ruben Pedrosa?**

28 urteko beratar alaia.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Denbora aprobetxatzea dut zaletasunik handiena, eta kirolaren bitartez baldin bada, hobe.

**Artxila Eskalada Taldeko kidea zara. Nolatan hasi zinen eskalatzeko?**

Lagun batzuekin hasi nintzen, beraiekin ikasteko zortea izan dut.

**Ezagutzen ez duenarentzat, zer da Artxila? Nola deskribatuko zenuke?**

Amankomunean dugun zaletasuna aurrera eramateko sortutako elkarte eta rokodromo bat Artxila Eskalada Taldea.

**Zein helbururekin sortu zenuten Artxila?**

Eskaladaz gehiago gozatu eta gusturago entrenatzeko beharretik. Zoritxarrez gure eskualdean eguzkia guti ikusten dugu.

**Elkarteko lehendakaria ere bazara. Nola aukeratu zintuzten lehendakari?**

Bertzerik gabe, lehendakari bat behar zelako eta nonbait energia anitzekin ikusi ninduten.

**Urtebete pasatxo daramazue martxan. Nolako izan da hasiera?**

Hasiera guztiak dira zailak, elkarte sortu, instalazioak



eraiki, funtzionamendua zehaztu... baina martxa hartu dugu. Covid-19ak ere ez du lagundu.

**60 bazkideetik gora zarete eta itxaron zerrenda ere baduzue. Pozik zaudete orain arte eginda-koarekin?**

Bai, ez genuen horrelako harrierarik espero. Oinarrizko helburua gunearen alokairua ordaintzea zen.

**Bazkide ez den batek nola egin dezake Artxilara sartu eta probatzeko?**

Bazkideen bitartez sar zaitezke bertara.

**Zein dira Artxilaren etorkizuneko erronkak?**

Alokairua ordaintzen segitu eta eskaladaz gehiago eta gehiagok gozatzea. Epe luzerako proiektu bat izatea espero dugu.

**Eta pertsonalki zure etorkizuneko asmoak?**

Galdera zaila. Asmo berezirik ez daukat etorkizunean, bizi-tza ahalik eta gehien disfrutatzea bertzerik ez.



# Merkealdia

1951tik

*Casa Cambra*  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

*Albornozak*

*Mantelak*

*Kuxinak*


*Edredoi nordikoak*

*Ohe estalkiak*

*Maindireak*

*Toailak*

*Edredoi-azal nordikoak*



## IRAKURLEA MINTZO

## Ezbeharra

## XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Laurogeiko hamarkadaren bukaera aldean, Nafarroako Parlamentuak, azkenean, foru lege bat onartu zuen, arauz kanpoko funtzionala zuten pertsonen bizimodua hobetzeko eta errazteko asmoarekin, hau da, elbarri, ezindu handi, itsu, mutu, gorren eta abarren kolektiboetan sartzen ziren pertsona haien guztien bizitza arindu eta gozarazteko asmoz. Baina lege hark, lege guztiek bezala, bazeukan bere araudia, artikulu guztiak garatu eta erregulatzeko, eta, jakina, legearen barruan, halaber, bazegoen departamentuarterko jarraipen batzorde bat, haren segimendua egiteko eta kontrolatzeko. Bueno, ba, zer gertatuko, eta Nafarroako Gutxitu Fisikoen Elkarte-Koordinakundean neroni aukeratu nindutela, batzordeko bileretara joateko, Koordinakundeko izenean (...).

Aipatutako legearen arabera, jarraipen batzorde hark, gutxienez bi bilera egin behar zituen urtean, oztopo arkitektoniko eta sensorialen kentzearen martxa hobeki kontrolatu eta kudeatzeko, baina, errealitatean ez zen horrelakorik gertatzen, batzuetan, bilera bat baino ez baitzen egiten, eta, beste batzuetan, ezta bakar bat ere. Horrexegatik, hain zuzen ere, bilerak geneuzkan aldiro-aldiro, nik batzorde buruari, presaka aritzea eskatzen eta erregu-

## GOITI ETA BEHEITI



## Lotsa, 'vergiienza', 'shame', 'dommage'

Berdin da zein hizkuntzatan erraten duzun! Horrela sentitzen naiz igandero irudi hau ikusten dudanean. Dibertigarria al da hauren jolastokia zikintzea? Dibertigarria al da ttikientzako arriskuak sortzea? Dibertigarria al da garbitzaileei lan gehiago ematea? Zinez ez dut ulertzen gizarteak honi zer grazia ikus diezaiokeen. Zer egiten ari gara gaizki! Halaxe dio Berako Carlos Camposek.

tzen nion, mota guztietako oztopoak ahalik eta azkarrena kendu ahal izateko, baina argi eta garbi dago ez nuela batere arrakastarik lortzen, batzorde buruak, behin baino gehiagotan, zera esaten baitzidan:

-Lasai, Xanti, lasai!, bada-kik hobe dela gauzak poliki eta patxadaz egitea, baina ongi, eta, ez, laster eta gaizki! Horrexegatik (...) berriz eskatzen diat lasaitasuna. Nik uste diat, zuek kexati eta presati hutsak zaretela.

-Kexati eta presati hutsak ez, baizik eta zeharo errealistak. Guk ere egunero bizi behar diagu, e!, eta, oztopo arkitektonikoak hortxe zaudetik, bazter guztietan, horrexegatik zeukaagu hainbeste presa, hil edo bizikoa delako guretzat



CARLOS CAMPOS

oztopoak kentzea; herorrek ere ikusiko duk noizbait tokatzen baldin bazaik! Eta, argi eta garbi geldu dadila, nik ez diadala horrelakorik inola ere opa! –nik, minduta.

Eta gauzak zer diren, handik hilabete batzuetara, batzorde buruak (...) egundoko auto istripua izan, eta, ospitalera eraman behar izan zuten oso larri, haneketakoz hezur asko hautsita. Luzaroan egon behar izan zuen erietxean, bere onera etorri nahian. (...) egun batean, gizalegezko bisita bat egitea deliberatu nuen. Bere gelara sartu, eta, hantxe, hizketan ari ginela, (...) zera bota zidan ziplo, damutu samarturik, etzanda zegoen ohatzetik:

-Ai, Xanti, Xanti!, ez dakik ongi zenbat aldiz oroitu

naizen hitaz (...)! Eta nola aldatzen den ikuspuntua, egoera fisikoaren arabera! Orain, gorpil aulkian, kalera ateratzen nauten guztietan, oztopo arkitektonikoak baino ez ditiat ikusten! (...) Dena duk espaloiak, koskak, zuloak, eskaillerak eta abar; ze nazka! (...) Bai, behin betiko, eta, lehenbailehen kendu eta ezabatu beharra zagok oztopo guztiak, Xanti!

Handik aurrera, ez dut oso ongi gogoratzen, erabat osatu zen ala ez gizon hura; gorpil aulkian jarraitu behar izan ote zuen ibiltzen ala ez, baina, argi eta garbi dagoe-na da, bere mentalitate aldatuta.

Hertzainak musika taldeak kantatzen zuen bezala: «Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!».



## BOTA BERTSOA

**ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR**

LESAKAKO BERTSOLARIA

BAZTAN-BIDASOKO XXXIV. BERTSOPAPER LEHIAKETAN D MAILAN 1. SARIA

**Egia ur azalera**

Doinua: Hogeigarren urtera III



1. Ingurune basati  
eta ur gardena  
Baztan izenarekin  
ibilgu laurdena  
Historia, bizitza...  
lehen zena, gaur dena  
bihotz eta birika  
bidasoarrena  
Zorionen ur laster,  
minen aztarrena  
memoria sortzaile  
mendeetan barrena  
Zorionen ur laster,  
minen aztarrena  
Ahanzturak al daroa  
urak dakarrena?

2. Hogeitamabortz urte  
lehenago jazoa  
Garaiko kroniketan  
espantuz jaso  
Emaria bihurtzen  
baita arazoa  
azken portu ez badu  
Kantauri itsasoa  
Eta lekuko mutu  
gisa Bidasoa  
itsasgora bizien  
kontraerasoa  
Eta lekuko mutu  
gisa Bidasoa  
ur gezetan murgildu  
al zen marrazoa?

3. Mila bederatzirehun  
laurogeitabortzak  
agerian zekartzan  
guden kanpai hotsak  
etenik ez zeukaten  
mendeku ta bortzak  
Urte beroegi ta  
ur korronte hotzak  
Bahiketak, torturak  
edo heriotzak  
Bainuontzi beteak  
ta plastiko poltsak  
Bahiketak, torturak  
edo heriotzak  
denak batzen zituen  
Mikelen hilotzak.

4. Urduri mugitzen du  
txakurrak isatsa  
ez badu zein hozkatu  
edo zein mehatxa  
Dekoratu modura  
hartuz Endarlatsa  
non ta zergatik eman  
zuen azken hatsa?  
Diktadura osteko  
aldaketen fartsa  
arratsaren ondotik  
zetorren arratsa  
Diktadura osteko  
aldaketen fartsa  
larrosari aspaldi  
zerion kiratsa.

5. Jakinik Kongresura  
tarteka nor doan  
Ministro ziniko bat  
ta prentsa ondoan  
gorpuzki bat sartzeaz  
ur putzu hondoan  
sagar ustel ugari  
da intxaurren doan  
Ta indarkeriaren  
zirkulu zoroan  
erahilen zerrenda  
izanik gogoan  
Ta indarkeriaren  
zirkulu zoroan  
guztia ez al zaie  
aterako doan?

6. Sobran daude lamentu  
hitz eta erruki  
oraindik aitortzarik  
ez bada eduki  
Bertsio "ofiziala"  
deitua maisuki  
arduradunen bila  
ez joan urruti  
Gurean zenbait kontu  
ezin dira uki  
nazka sentitu arren,  
nahiz bihotza hunki  
Gurean zenbait kontu  
ezin dira uki  
Zenbat su piztu ta zein  
argitasun gutti.

7. Patua bada izu  
ta beldurrezkoa  
nork gauzatu dezake  
sake-errestoa?  
Guztia zen zilegi  
eta legezkoa  
komenigarri bezain  
zuzenbidezkoa  
Hilketak ta torturak,  
ez da bidezkoa,  
nahiz ta oroimena den  
derrigorrezkoa  
Hilketak ta torturak,  
ez da bidezkoa,  
lotu ditu Bortziri  
eta Aezkoa.

8. Ta lotura hain latza  
ta estua da, ño!  
naramala bi mila  
eta zortziraino  
irudiko bertsio  
irudiko laino  
hobe gezur "ofizial"  
onarpena baino  
Ezagutu gabeak  
baikeunden gaurdaino  
beldurra sartzen zaigu  
hezurretaraino  
Ezagutu gabeak  
baikeunden gaurdaino  
Bidasoa heltzen zela  
Arrasateraino.

9. Zuzenbide estatu  
ta gerra zikina  
bi aurpegi dituen  
moneta berdina  
Batzuek hilobia  
bertzeek domina  
hau da gertatuaren  
laburpen gordina  
Eragindako minak  
onartu ezina  
bertzeek pairatua  
denean, jakina!  
Eragindako minak  
onartu ezina  
eta onarpen ezak  
sortzen duen mina.

10. Bidasoaren ezker  
ta eskuin aldera  
ihardespen gabeko  
hamaika galdera  
Suminduta atera  
zirenak kalera  
erantzuna hel zedin  
mundu zabalera  
Galeraren besotik  
PSOEn GALera  
alde bakarrekoa  
ez baita galera  
Galeraren besotik  
PSOEn GALera  
egia aterako  
da ur azalera.



Rosa Mari Errandonea eta Jose Antonio Errandonea 'Totonon' anai-arrebak beraien etxeko atarian.

## Berako historiaren eta irudien gordailuak

Rosa Mari eta Jose Antonio Errandonea anaia-arrebak 1979. urtetik aritu dira Berari buruzko argazki, historia eta prentsan ateratako albisteak biltzen eta antolatzen. Berriki hartu dute lan horietatik jubiltatzeko erabakia. Beren etxean hartu dute TTIPI-TTAPA, kafe baten bueltan

### A. LARRETxea

Berako historia, ohitura eta irudien gordailua. Horixe da Rosa Mari eta Jose Antonio *Totonon* Errandonea anai-arreben etxea. Berari buruzko gordailurik handiena da, gordailu bizia oraindik ere. Karrikan argazkiak egiteari utzi badiote ere, etxe barrenean dute artxiboa antolatzen segitzen baitute orain. Ezin zenbatuzkoa da etxean duten altorra, Berako milaka argazki dituzte, baita herriari buruz prentsan ateratako lagin handi bat ere. Beren etxera sartzea Berari buruzko museo batean sartzea da.

1977. urtean hasi zen *Totonon* prentsan Berari buruzko albiste eta irudiak gorde eta sailkatzen, eta ondotik 80ko urteetan hasi zen Rosa anaiak bildutako informazio hori guz-

tia osatzeko argazkiak egiten. «Totonok herrian antolatzen ziren gauzen egunkari edo aldizkari zatia ateratzen zuen, eta orduan pentsatu nuen nik ere bertara joan eta argazkia ateratzea, horrela informazioarekin batera argazkia ere izateko». Hala, urteetan, Berako ekitaldien argazkiak egiten aritu da, eta hainbat hedabideri eman dizkio, tartean TTIPI-TTAPARI.

Bitan banatu dute egindako lana: argazkiak egiteaz Rosa arduratu da, eta prentsan ateratako Berako albisteak artxibatzeaz *Totonon*. Azken urtetan

**«ARGAZKIA GAUZA ANITZEN ERAKUSLEA DA»**

ROSA MARI ERRANDONEA

*Diario Vasco, Diario de Noticias* eta TTIPI-TTAPA aldizkarietan Berari buruz aterarako albisteak gorde ditu, baina egungo ez gain, antzinakoak ere bildu ditu: *Arriba España, Voz de España, Egin, Pensamiento Navarra...* egunkarietakoak kasu.

Aitarengandik datorkie argazkiak biltzeko eta gordetzeko sena. «Gure aitak denda bat zeukan, eta bertan saltzen zituen argazkilariek egindako kopiak. Saltzen ez zituenak botatzeak pena ematen zion, eta gorde egiten zituen. *Totonok* argazki horiek guztiak

**«JENDEARI ESKER LORTU DUGU HAU DENA GORDETZEA»**

JOSE ANTONIO ERRANDONEA

aurkitu zituen, eta ordenatzen hasi zen», kontatu du Rosak. Hasi baziren hasi, geroztik, etengabean aritu dira Berako argazki zaharrak biltzen eta txukun antolatzen.

Baserriak ezagutzeko grina-tik hasi zen dena Rosak kontatu duenez: «Niri baserri guztietako argazkiak egiteko grina piztu zitzaidan. Eta 1995eko Lurraren Egunean, orduko alkatearekin solas egin eta herriko baserrien argazkiekin eta bertan bildutakoe-kin erakusketa bat egitea proposatu zidan». Eskatu eta egin. Lehenengo erakusketa horren ondotik, ohitura bihurtu zen Lurraren Egunaren bueltan bi anaia-arrebek egindako erakusketa, eta denera 4.394 argazki erakutsi zituzten 2018ra arte. Baserrietatik hasi, eta azkenerako herriko tradizio eta ohiturei buruzko erakusketa bihurtu zen urterokoa.

### Herritarrek utzitako irudiak

Erakusketaz harago, ordea, beren lana biltzen dute bi lan ere bildu dituzte: *Bera, herri bat unez une* eta *Bera baserri baserri*. Bigarren lanarekin bereziki gustura daude biak: «Bertan bildu genituen Berako baserri guztien argazkiak, eta bertan bizitakoena. Sekulako arrakasta izan zuen, jendeak hagitz gustuko izan zuen». Lan hori egiteko, herriko baserri guztietako sukaldean izan ziren, bai baserriaren argazkiak egiteko, baita baserri bakoitzean zituzten argazkiak biltzeko ere: «Jendeak argazkirik eman izan ez balu hau dena ez litzateke posible izan. Hori argi dugu, eskerrak beraiei eman behar dizkiegu», kontatu du *Totonok*. «Gure lana beraiei esker da. Hagitz polita da, batez ere jendearekin sortzen den harremana. Ni Berako baserri guztietan egon naiz, eta hori niretzat ohorea da», nabarmendu du Rosak.

Baserrietako argazkiak, bai, baina ez hori bakarrik. Berari buruzko denetariko argazkiak bildu dituzte beraien bilduman.



Argazkiek, gainera, gauza anitz erakusten dutela dio Rosak: «Argazkia beharbada ezkon-dutako bikote batena da, bai-na irudiak ez du hori bakarrik erakusten. Irudiak etxeak nolakoak ziren erakusten du, zein arropa erabiltzen zituzten, zein ibiltzen zen elkarrekin... Gauza anitzen erakusle da».

Hainbertze argazkiko bilduma batean, txukun mantentzea, eta ongi artxibatzea garrantzitsu da, eta hori da hain zuzen orain egiten ari direna: lehenagotik ordenatuta zegoen artxiboa bigarrenez sailkatzea. «Argazki bakoitzaren ondoan paratzen dugu argazkia nor-ku utzi digun, zein ageri den argazkian, non ateratakoa den, noiz... Hori dena egitea sekulako lana da». Horretarako batarengana eta bertzearengana jotzen dute, batez ere argazki zaharretan ageri direnak identifikatzea zaila delako. «Pasa den astean 90 urteko gizon bat etorri zen etxera, eta bi ordenagailurekin aritu ginen jendea identifikatzen», kontatu du Totonok.

#### Eskuragarri dagoen artxiboa

Etxean duten artxibo hori, ordea, ez dute beraiena bakarrik izatea nahi, eta, gogoz hartzen dituzte beren antzinakoen argazkien bila joaten diren herritarrak. «Argazki zaharrek gerta zitezkeen bere garaian familia batzuetan ez zutela argazkiak erosteko nahiko ahalmen ekonomikorik. Eta etorri izan dira beren oinordekoak argazkiak eskatzen, eta aurkitu izan dituzte beraiek inoiz ikusi gabekoak», azaldu du Rosak. «Kopiatu egin izan dizkiegu, eta guretzako sekulako poztasuna da». Makina bat anekdota dituzte. «Bertze behin Berako neska bat etorri zen bere baserriko argazkiaren bila, eta halako batean negar batean hasi zen. Kontua da guk bagenuela bere gurasoen ezkontzako argazkia, baina, beraiek ez». Argi utzi dute, beren etxeko atak zabalik daude argazkiak hartu



Berako mojen eskolako ikasleak 1922. urtean josten ikasten.



Berako Dorrea etxea bota aitzinetik. Egun, lau etxebizitza bloke daude bertan.



Berako emakume batzuk Dorrea etxearen parean.



Berako Petrix presa, 1909. urtean. Gibelean Argaiaren okindegia.

nahi dituztenentzat, zein beren etxeko argazkiak eman nahi dituztenentzat: «Guk erraten dugu erretiratu garelako, baina erretiro hori urtarri-laren 1etik aitzinerako da, ez lehenagokoa. Edozeinek argazki zaharren bat badu eta utzi nahi badigu pozez zorrotzen jasoko dugu!».

Erretiroa aipatu dute, izan ere berriki hartu dute kanpoko lanetatik jubilatzeke erabakia, eta ia zok abenduaren 31n Berako udalak omenaldi xume batekin eskertu zien urte antzetz herriaren alde egindako lana. «Atea ireki, eta alkatea eta bi zinegotzi ikusi nituen lore sorta eta plakarekin, eta ez nuen erreakzionatzeko denborarik ere izan», kontatu du Rosak. Sorpresaz hartu zuten eskertza: «Ez genuen inondik inora ere espero udalak horrelako errekonozimendurik egiten zigunik». Esker oneko hitzak dituzte, baina, argi dute ez direla herriaren alde lan egin duten bakarrak: «Guri beti eskertu izan digute herriaren alde egin dugun lana, baina, uste dugu Beran badagoela jende anitz herriaren aldeko lanean aritu dena, eta beraien lana ez dela hainbertze aitortu».

Karrikako lanetik erretiroa ofizialki hartu duten honetan, lanean segitzen dute: «Etxean baina lanean ari gara. Gauzak gorde egin behar dira, izenak apuntatu, jendearekin egon identifikazio lanak egiteko...». Eta badituzte buruan bertzelako proiektuak ere. Totonok Berako besten bueltan ateratzen den *Berako Oihua* aldizkariako herriko bitxikeriei buruz idatzi zuen 42 urtez, eta orain artikulua horiek denak liburuxka batean biltzeko asmotan daude.

Urteetan Berako ondarea pilatu dute, eta argi diote bildutako guztia herriarentzako izan behar dela. Beraien lan guztia eskuragarri izatea nahiko lukete, ordea, eta orain artean bezala edonork erabiltzeko aukera izatea. Horregatik, dena udalari uzteko asmoa dute.

## «Kolaboratzaileak beharrezkoak dira egunero saioa egiteko»

**UNAI ZABALETA** LEITZAKO KARRAPE IRRATIKO ARDURADUNA

1993an sortu zen Leitzan Karrape Irratia euskara bultzatzea, herriko informazioa zabaltzea eta entretenimendua helburu. Lan egiteko modua aldatu da geroztik, ez, ordea helburuak. Unai Zabaleta arduratzen da egun astelehenetik ostiralera hiru ordu eta erdiko saioa egiteaz

### A. LARRETxea

Leitzako udaletxeko lehenengo solairuan dago Karrape Irratiaren egoitza. Bertatik egiten du egunero Unai Zabaleta esatariak hiru ordu eta erdiko magazina 10:30etik 14:00etara. Irrati bidez 107.8 FM sintonian aditu daiteke Leitzan eta Areson, eta berriki digitalizatorako urratsa ere eman dute. Leitzako udalaren webgunean (*leitza.eus*) aditu daiteke saioa zuzenean, eta elkarrizketa interesgarrienak ere bertan paratzen dituzte podcast formatuan. Karrape Irratiaren egoitzan hartu du Zabaletak ТИПИ-ТТАРА, irratiaren nondik norakoan berri emateko.

### Irratia sortu zen garaian, nondik izan zenuen proiektuaren berri?

Irratia hasi zen garaian izan zen jende multzo bat mugitu zuena: euskara zerbitzuak, kultur taldeak... Hasieran despiste kanpaina bat egin zuten, herriko jende pila bat ageri zen argazki batean bizkarrez, eta gero jada aurpegiz. Ondotik atera zen nola sortu behar zen irratia. Ikastaro batzuk antolatatu zituzten. Xorroxin irratiak Joseba Igarabide etorri zen ikastaroak ematera eta horietan parte hartu nuen. Hori izan zen nire lehen kontaktua irratiarekin. Hasierako urteetan bajaren bat betetzen aritu nintzen eta euskaltegiak irratiaren ardurara bere gain hartu zuenean

ere egon nintzen lanean. Ondoren, beste jende batek hartu zuen irratia, eta, 2000. urtean berri hasi nintzen. Incansables txaranga eta irratiaren bertan hasi nintzen, beraz, aurren, 22. urtea beteko dut hemen.

### Nola aldatu da irratia hasierako urte horietatik?

Dudarik gabe teknologia aldatu da. Aldaketarik handiena horretan izan da. Karrape hasi zenean zintekin hasi zen lanean. Biniloen bi plato zeuden eta horiekin funtzionatzen zen. Zintetatik gero CDetara pasa ginen, eta grabatzeko modan jarri ziren mini disc-ak.

Mini disc txiki horietan grabatzen zen, eta guretzat latza zen!. Gero, Internet eta hasi zirenean, dena Internet bidez egiten hasi ginen: bai musika, grabazioak, edizioak... Gaur egun, Internetez ere emititzen da eta podcastak ere sarean jartzen dira.

### Zer ekarri dute teknologia berri horiek?

Aldaketa izugarria izan da, nostalgikoentzat politagoa izango zen bestea, baina guri lana errazten digu oraingoak: kalitatea ematen du, eta aukera gehiago ematen ditu. Gure irratia orain arte 107.8 FM-n entzun da, eta gaur egun ber-

tan eta online entzun daiteke. Elkarrizketa asko Leitzako udaleko orrian jartzen ditut podcast formatuan, Leitzako Karrape Irratia Facebook orrian ere jartzen dira. Pentsa zenbat bide dituzun entzuteko, edozein ordutan, zuzenean edo ez... Mila aukera ematen ditu. Eta nabaritzen da, herritik kanpo bizi diren leitzarrek ere entzuteko aukera dutelako. Zuzenean hiru ordu eta erdiko magazin bat entzutea ez da erraza, lanean zaudelako, edo mendian... Polita da eta jendeak nahi du hori. Baina, beste kontu bat da *leitza.eus* web orrira sartu eta hor zuki nahi duzuna entzutea.

### Podcastez ari zara, nola funtzionatzen dute horiek?

Ivoox plataformaren bidez igotzen dira, eta oso kopuru politak lortzen ari gara. Duela hilabete batzuk hasi ginen hau egiten, eta igotako elkarrizketaren bat 3.700 pertsonen entzun dute. Nik ez dakit kalkulatu, baina, iruditzen zait badela jendea. Oso kontent nago alde horretatik. Oraindik martxa hartzen ari gara, eta jendea irazagutarazten. Aldaketa nabarmena da.

### Zein dira zuen entzule potentzialak?

### «Zerbait antolatu beharko dugu 30. urteurrenerako»

Irratiko lanaren eguneroko jardunak murgilduta, elkarrizketa aurretik irratiak zenbat urte dituen ere zehatz ez zekiela onartu du Unai Zabaletak. Batari eta besteari galdetuta ikusi du zein izan zen lehen emisio eguna: «Elkarrizketarako deitzean begiratu behar izan nuen. Beti zalantza izaten nuen zenbat urte dituen eta udaleko dokumentu batzuetan ikusi dugu 1993an egin zela lehen emisioa».

28 urte bete, eta 29 egiteko bidean da Karrape, eta



Karrapeko estudioa 1996an. egindako argazki batean.

aurreko data biribilak ospatu ez badituzte ere, 30. urtemugan paratu du begirada Zabaletak: «Orain urteurrena zein den bada-kigula zerbait antolatu

beharko dugu. 2023ko urriaren 28an izango da eta zerbait egingo dugu. Ordu-rako egoera ere beste bat izatea espero dugu», kontatu du.



Ez dugu behin ere jakin. Askotan ohartzen zara kalean jendeak galdetzen dizula, eta horrek adierazten du badela jende bat entzuten duena. Oporrak hartzean kalean askok eta askok galdetzen didate ea noiz itzuli behar dudan, eta hori bada seinale jendeak entzuten duela.

#### **Zein funtzio betetzen du irratiak herrian?**

Zerbitzu bat da, eta udalak ere oso argi du hori. Udalak apustu bat egin du horrekin, eta aurrera jarraitzen du. Bere sorreran zuen helburuetako bat euskara sustatzea zen, herriko informazioa bultzatzea, eta entretenitzea, noski. Eta gaur egun ere horretan jarraitzen dute bete-betean helburu guztiak. Euskara hutsean den irrati da, saiatzen naiz gure euskalkian egiten. Herriko informazioa nabarmena da, eta hori eskertzen da: udal-ekoa, herrikoa, elkarrekin... Eta bada erreferente bat horretan. Baina ez da horretan bakarrik zentratzen. Gai guztiak hortik jorratzen dira. Eta gero, bada, beste zerbitzu txiki edo handiak ematen ditu.

#### **Zein dira eskaintzen dituen beste zerbitzu horiek?**

Eragile edo talde asko etortzen dira beren inguruko informazioa eta agenda ematera. Eta oso kurioa da aspalditik jendea etortzen dela hona edozer aurkitu duela esanez: giltzak, patineteak, jertseak, dirua, mugikorra... Hona ekartzen dituzte eta nik hemendik tartetxo batean esaten dut, eta askotan zorionez galdu duen hori bila etortzen da. Jendeak badaki baduela aukera bat hemen zerbaitek galdu badu laguntza eskatzeko. Badirudi zerbitzu oso umila dela, baina irratiak betetzen du funtzio hori. Azkenean horretan ere zerbitzu bihurtu da.

#### **Nola finantzatzen da egun Karrape Irratia?**

Udal irrati bat da, %100 finantzatzen du udalak. Nafarroako Gobernuko diru-laguntzak ere jasotzen ditu, dagokion



Unai Zabaleta Karrape Irratiak Leitza duen estudioan.

neurrian. Udalak apustua egiten du euskarazko komunikabideen alde, eta horregatik segitzen du Karrapek ere hein handi batean.

#### **Beste irrati batzuekin ere aritzen zara elkarlanean, Aralar eta Esan-Erran irratiarekin adibidez, batera egiten duzue saioaren zati bat- Nolakoa da elkarlan hori?**

Polita eta berezia da. Bakoitzak bere saioa du, bakoitza izaera desberdinekoa gara. Bere garaian Beleixe, Esan Erran eta Aralar hasi ziren honetan. Gu orduan teknologikoki oso pbreak ginen. Orain, hiruek elkar ikusten dugu pantailan, eta nolabaiteko gertutasuna ematen dio horrek. Egiazkoa goa ematen du.

#### **«KARRAPE UDAL IRRATI BAT DA, %100 FINANTZATZEN DU UDALAK»**

#### **Nolakoa da batera egiten duzuen saioa?**

Errepassotxo bat egiten dugu aktualitateko gaien inguruan, edo entzuleek proposatzen dituzten kontuen inguruan, eta nik uste dut saiatzen gara saltseroak izaten. Zoritarrez azken aldira aktualitatea nahiko tristea da. Saiatzen gara bukaera aldera agenda kontuak eta berriak ematen, eta telefono bidez herritarrek parte hartu dezaten. Orduan inguruko saioa izaten da elkarrekin egiten duguna.

#### **Tarte hori aparte, zu izaten zara saio osoan gidari. Nola prestatzen da egunero hiru ordu eta erdiko magazin bat?**

Nekagarria da; jendea lortzea, produkzioa lana, gaiak bilatzea... Baditut lagun batzuk kazetariak direnak eta harrituta geratzen dira dena bakarrik egiten dudalako. Seguru aski igeltsero bat edo mendi lanetan ari dena fisikoki nekaturik da. Hemen ez da hori, hemen burua da nekatzen dena. Momentu batzuetan harri azpietatik atera behar dira gaiak, txukunak izatea nahi duzu, eta ez da beti lortzen. Egingarria bada, eta nik egiten dut, nahiz eta egia den momentu batzuetan nekagarria dela.

#### **Kolaboratzaile sorta zabala ere baduzu.**

Eta eskerrak horri, eta hau bihotz-bihotzez esaten dut, gure komunikabide txiki hauetan zerbaitek beharrezkoa dena eta gu eusten gaituztenak kolaboratzaileak dira. Eta bai, kasu honetan euskara teknikaria, liburuazaina, gizarte zerbitzueta →

#### **«BATZUETAN HARRI AZPIETATIK ATERA BEHAR DIRA GAIAK»**



Zabaleta da irratiko langile bakarra eta bera arduratzen da egunero hiru ordu eta erdiko saioa egiteaz.

kideak, Leitza eta Aresoko alkateak, kultur taldeak, eragileak, farmazietako langileak... Ni saiatzen naiz denetarioko gaiak lantzen. Batzuk astero etortzen dira, hamabostetik behin besteak... Horiek denak behar beharrezkoak dira, eta horrek izugarri aberasten du. **Zer pentsatzekoa ematen du herri txiki batek egunero hiru ordu eta erdikoa saioa bat egiteko adina ematea.**

Bai, zorionez Leitza oso herri mugitua da, eta eragile eta gauza asko daude. Baina, bai, batzuetan kostatzen da. Eta eskerrak hiru lankideek zerbait batera egiten dugula. Bestela ez dut esaten ezinezkoa denik, baina bai, oso zaila da zerbait txukuna egitea eta hori mantentzea. Eta gero bakarrik egoteak ere badu berea.

**Zer aukera ditu lagun gehiago egoteak?**

Lana banatzeaz gain marabilak egin ditzakezu. Pentsa adibidez luizi bat izan dela, bat bertara joan daiteke zu-

zenez bertatik kontatzera. Baina hori orain ezin dugu egin. Zein da beste bidea? Telefonoa hartu eta telefonoz deitzea bertan dagoen bati. Hemendikezin ateratze horrek zuzeneko gauza batzuk egitea murrizten digu.

**Leitziatik eta Aresotik kanpoko gaiak ere jorrotzen dituzue.**

Leitza bai, baina dudarik gabe hemendik atera behar dut. Saiatzen nahiz eta Euskal Herri osoko gai bat izan hemen ere interesantea izatea, eta hemengorako ere balio izatea. Oraingoz astelehenetik ostiralera hiru ordu eta erdi egitea bada zerbait. Baina era berean niri oso aberatsa zait. Urte hauek guztietan izugarri erakutsi dit. Informazio askok

ihes egiten du, baina zorionez asko ikasten da.

**Informazioa aipatu duzu. Nondik lortzen duzu?**

Zorionez badaude euskarazko bertze medioak guri ere asko laguntzen digutenak: *Erran.eus*, *Berria*, *Naiz*, *Noticias*... izugarri erabiltzen ditut. Horiek denetatik jasotzen dugu informazio asko. Eta are eta gehiago euskarazko gure komunikabideetatik: *Erran*, *Xorroxin*... Elkar lagundu eta elkar babestu behar dugu. *TTPI-TTAPAK* berak gauza asko erakusten dizkigu, askotan horrela enteratzen garelako gauzez. Beste askotan guri egokitzen zaigu galdezka aritzea, batzuetan herritarrak beraiek etortzen dira. Guri

**«GURE LANA DA ELKARRIZKETATUA MIMATU ETA ONGI SENTIARAZTEA»**

**«URTE HAUETAN IRRATIKO LANAK IZUGARRI ERAKUTSI DIT»**

izugarri ongi etortzen zaigu jendeak informazio ematea. Nik jendeari beti esaten diot inguruko gauzak esateko; batek hau egin duela, besteak hura sortu duela... bestela eskapatzen zaizkigulako.

**Nolako harrera jasotzen duzu irratitik jendearengana joatean?**

Bada jendea mikroari panikoa diona eta inoiz etorriko ez dena; bada jendea kostata etorri, eta urduri hasi arren gero aritzen dena. Gure lana ere bada elkarrizketa egiteaz gain bera mimatzea, lasai sentiaraztea. Askotan esan izan didate urduri etorri eta gero gustura egon direla, eta hori esateko pasa dira hogeita minutu. Irratiz, gainera, errazagoa da, hona etorri gabe, telefono bidez, skype bidez egin dezakezula. Zaila ez da, nahiz eta ulergarria den badagoela jendea ez dena inoiz etorriko. Nik ikusi izan dut jendea hemen oso gaizki pasatzen, eta zuk ere sufritu egiten duzu horrelakoetan. Batzuetan lortu izan dut horri buelta ematea, eta hori oso ariketa polita izaten da.

**Aurrera begira zein erronka gertatzen zaizkio irratitari?**

Nik uste dut aurten hasi dugun prozesu honekin jarraitzearena: online emititzearena, podcastak igotzearena, sare sozialetan presentzia gehiago izatearena... Bazen apustu polit bat eta udalak egitea nahi zuena. Bide hori hartu dugu, bidea nahiko txukun hasi dugu, eta bide horretatik jarraitzea da erronka. Egia da irratiko FM-ko frekuentzia ez dugula kendu behar; adineko jende asko dagoelako entzuten duena, Teknologia behar beharrezkoak ditugu jendearengana zabaltzeko, eta Internetek aukera hori zabaltzen dio ohitura hori ez duen jendeari. Batek daki hemendik urte batzuetara zuzenekoak *streaming* bidez ikusteko aukera egon da. Edo saio bereziak egitea *streaming* bidez... Horretarako teknologia behar da, eta buruan noski badugula.



# Zaindu maite duzun hori...

Zein  
da  
zuzena?

## Nola erran?

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### 'Elkarrenganako maitasuna' ala 'elkarrekiko maitasuna/gorrotoa/konfiantza'?

Hobestekoa **elkarrenganako maitasuna** da; Euskaltzaindiaren arabera, horixe baita «euskal literatura-tradizioan gehien erabiltzen den egitura». Badira *elkarrekiko maitasunaren* adibideak ere, baina Euskaltzaindiak dioenez, «hagitz-hagitz guti».

Bertzetik, **-ganako gorrotoa** edota **-ren kontrako/aurkako gorrotoa** dira hobestekoak. Euskaltzaindiak ez du **-kiko gorrotoa** duen adibiderik aurkitu tradizioan.

Orobat **konfiantzarekin** ere **-ganako konfiantza** da hobestekoa, «aunitzez ere erabiliagoak baitira egitura hori edota **konfiantza... -gan** modukoak». Baina bertzeak gaitzetsi gabe: «**-ki(la)ko konfiantza** modukorik aurkitu ez dugun arren, badira horren oinarri izan daitezkeen egiturak: alegia, **konfiantza... -kin** gisakoak».

### 'Euskara-irakaslea' ala 'euskarazko irakaslea'?

Bi erabilerak zuzenak dira baina esanahi desberdinekoak. Sakonean, *euskara ikasi* eta *euskaraz ikasi* esapideen artean dagoen aldea da horien artekoa.

- **Euskarazko irakaslea** ikasgaia, edo dena delakoa, euskaraz irakasten duena da.
- **Euskara-irakaslea (= euskarako irakaslea)** euskara irakasten duena da (ikasgaia euskara da).
- **Ingeles-irakaslea (= ingeleseko irakaslea)** ingelesez hizkuntza irakasten duena da (ikasgaia ingelesa da).
- **Ingelesezko irakaslea** ikasgaia, edo dena delakoa, ingelesez irakasten duena da.

## Letra-zopa

Inauteri usaina sumatzen hasia da han eta hemen... Bilatu hemen gure eskualdeko inauteriei lotutako zortzi hitz.

I	N	U	D	E	J	O	A	L	D	U	N	T	V
Y	H	T	D	M	O	Z	O	R	R	O	U	Z	P
Q	J	N	S	Z	A	K	U	Z	A	H	A	R	V
H	A	R	T	Z	D	M	S	X	D	L	Y	J	E
D	R	M	Y	A	P	Z	A	H	A	G	I	D	W
M	X	Q	T	A	O	E	L	O	A	C	H	P	A
A	R	A	C	U	I	S	B	K	I	J	C	D	D
X	U	P	D	A	M	A	K	F	D	Z	I	A	E
X	I	P	R	D	W	K	A	T	S	A	U	R	E

798. aldizkariko esaera hau da: **Inor ez da ikasia jaiotzen.**

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Plaza Zaharreko zuloa behin-behinean tapatu dute.

## Azken euriteek eragindako kalteak neurtu ditu udalak

Euriteek eragindako kalteak konpontzeko diru laguntzen eskaria bideratzen ari da udala

### AINHOA LARRETxea

Abenduko eta urtarrileko euriteek kalte nabarmenak egin zituzten hainbat tokitan. Udala kalte horiek konpontzeko lanetan ari da, eta kostu horiek zenbateko aurrekontua izanzen duten aztertzen. Neurketa horren arabera, abenduko euriteek 78.821,69 euroko kaltea eragin zuten. Urtarrilekoei dagokionez, oraingoz 150.000 euroko estimazioa egin du udalak, nahiz eta aurreikusi duten oraindik ere gehiago izan daitekeela.

Abenduko uholdeek bi motatako kalteak eragin zituzten.

Batetik, herrigunea eta base-ri auzoetako bideak lotzen dituzten errepideetan kalteak izan ziren, eta hainbat mendi pistetan ere luiziak eta erortzeak izan ziren.

Urtarrileko euriteei dagokienez, Agerratik Bidasara doan ur erien hodia kaltatu zen, eta Plaza Zaharrean zuloa egin zuen erreka. Behin-behinean tapatu dute zuloa, oraingoz.

Kalteen informazio guztia Nafarroako Gobernura bideratu du udalak, horiek konpontzeko behar diren dirulaguntza eskariak tramitatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

## 64 parte-hartzaile ziklo-kros proban

Urte anitzen ondotik, berriz ere Ziklo-kros proba jokatu zuten urtarrilaren 23an. Iruña Taldeak antolatu zuen proba Gure Txokoa Elkartearen eta Berako udalaren laguntzarekin. Denera 64 parte-hartzaile izan ziren eta Gabiriako Jokin Matxinandiarenak irabazi zuen.



UTZITAKOA

## Beñat Goñi azpitxapeldun Lizarran

Beñat Goñi pilotaria —irudian ezkerrean— bigarren gelditu da Lizarrako banakako pilota txapelketan. Umeak A mailan jokatu zuen finala Iruñeko Oberena klubeko Mauleonen kontra, eta 18-6 galdu zuen. Ibilbide polita egiten ari da pilotan, eta beraz, zorionak!

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Astelehenetik ortziralera:  
07:15etik aitzinera  
**LABE ZAR**  
Larunbata eta igandea:  
08:00etatik aitzinera  
948 631 076 · BERA

**Anterola**  
Tekniko instalatzailea  
**ITURGINTZA · GASA KALEFAKZIOA**  
Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa  
**629 449 602**

**MARITX**  
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE  
Eramateko janaria astelehenetik ortziralera  
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info





'Zakumairu' lanak irabazi du inauterietako kartel lehiaketa. IZARO IPARRAGIRRE

## Egitaraua zehazteke, inauterietako kartela aukeratu dute

Izaro Iparragirre Irigoienek 'Zakumairu' izan da aurkeztutako bederatzi lanen artean boto gehien jaso duena

### AITOR AROTZENA

Inauterietako egitaraua zehazteko lanean segitzen dute udalak eta herriko kultur eragileek. Beti ere momentuko osasun egoeraren arabera eta neurriak betez egiteko asmoa azaldu du udalak. Egitarauaren berri zehatzagoa hurren-

go aldizkarian agertuko badugu ere, dagoeneko kartela zein izanen den erabakia da. Lehiaketara aurkeztutako bederatzi lanekin erakusketa egin zen liburutegian eta Izaro Iparragirre Irigoienek *Zakumairu* izan zen boto gehien bildu zituena.

**BILTEGIA: 948 630 102**  
**SAKELAKOA: 633 480 563**  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

**LOREAK ETA LANDAREAK**  
Frain Auzoa - LESAKA  
T. 948 637 826



IBON ERRAZU

## Nafarroako VIII. trikiti jaialdi ederra

250 trikitizale bildu ziren ilbeltzaren 29an Harriondoan Nafarroako VIII. Trikiti Jaialdiaz gozatzera. Ondotik trikitipotea ere egin zuten herrian barna. Antolatzaileek balorazio positiboa egin zuten eta, okerrik ez bada, jaialdia otsailaren 26an, 22:00etan emitituko dute ETBko *Oholtza* saioan.



BETI GAZTE


## San Antonera ibilaldi arautuan irabazle

San Anton igandean Beti Gaztek antolatutako ibilaldi arautuan 73 mendizalek parte hartu zuten, bikoteka edo hirukoteka banatuak. Bikoterik erregularrena Loli Pardal eta Oihana Abuin ama-alabena izan zen eta bigarren Anjel eta Danel Urtxegi aita- semeena.

## 647.777 euroko kalteak eragin zituzten abenduko eta urtarrileko uholdeek

Abenduan eta urtarrilean izandako euriteek utzitako kalteen balantzea egiten aritu da hilabete honetan udala. Guztira 647.777 euroko kalteak izan dira, denak azpiegitura publikoetan: etxeetako bideetan, azpiegiturretan, pistetan eta trenbidean.

Lehen egunetan urgentziazko lanak burutu zituzten, etxeetako bideak irekiz eta hauen erabilera ahalbidetuz. Gai nontzeko lanak planifikatu eta faseka egiten joanen dira eta gastu horiei aurre egin ahal izateko dirulaguntzak eskatu ditu udalak



Ilbeltzaren 25eko aurkezpenean eman zuten logoaren eta leloaren berri. SEASKA

## Herri Urrats Senpereko aintzirara bueltan

'Itzulera' leloarekin ospatuko dute maiatzaren 8an, bosgarren kolegioa Senperen eraikitzeko xedearekin

### TTIPI-TTAPA

Bi urtez egin ezinik pasatu ondotik, Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko Herri Urrats maiatzaren 8an ospatuko dute Senpere aintzira inguruan, *Itzulera* leloarekin. Bosgarren kolegioa Senperen eraikitzeko lagungarri izanen dela aipatu zuen Peio Jorajuria Seaskako lehendakariak Kanbon ilbeltzaren 25ean egindako aurkezpenean.

2022ko Herri Urratsen logoaren eta leloaren sortzailea Amaia Ampo da, Manex Erdozaintzi Etxart kolegioko ikaslea. Bera ere aurkezpen

ekitaldian izan da. Kantua, berriz, Zetak taldeak sortuko du eta udaberrirako entzuteko moduan izanen dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Errektorearen erantzunaren esperoan, azterketak euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatuz giza-katea egitekoa zuten otsailaren 4an Baionan.

**AMAIA AMPO  
IKASLEAK ASMATU  
DITU LOGOA ETA  
LELOA**



Salto! udalekuetako irudia. UEMA

## Ireki dute Salto! UEMako gazteentzako udalekuetan izena emateko epea

### TTIPI-TTAPA

Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea da *Salto!* udalekuen helburua. Ekainaren 27tik uztailaren 3ra izanen da aurten udaleku ibiltaria, eta bi zutabetan abiatuko dira: Tolosatik aterako da zutabeetako bat eta Etxarri Aranaztik bestea. Hiru egunez bakoitzak bere bidea egin ondotik, laugarren egunean Leitizan elkartuko dira bi zutabeak, eta azken egunak batera emanen dituzte. Zazpi egunetan herriz herriko ibilaldiez gain kultur ekitaldiak, tailerrak eta solasaldiak izanen dituzte, eta euskaldun gisa kontzientziazteko, indartzeko eta ahalduntzeko gunea izanen da.

2004 eta 2007 urteen artean jaiotako gazteek ematen ahal

dute izena martxoaren 31 baino lehen. Izena emateko hiru modu daude: UEMako webguneke estekan sartzea, 943 816 699 telefonora deitzea, edota inskripzio datuak *hez-kuntza@uema.eus* helbidera bidaltzea.

### Begiraleak eta sukaldariak

UEMAk antolatutako udaleku ibiltarian gazteekin lan egiteko aisialdiko begiraleak eta sukaldariak behar dituzte. Interesa dutenek curriculumela *arnasguneak@uema.eus* helbidera bidal dezakete martxoaren 4a baino lehen.

Begirale titulua izatea, EGA edo baliokidea, hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea, antzeko lanetan ibilia izatea, euskararekiko sentsibilizazioa eta taldean lan egiteko erraztasuna baloratuko dituzte.

**JAIONE - COKOTEGIA**  
Etxean egindako produktuak  
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

  
744 484 361  
**ttipi-ttapa**

**BERRI S.L.**  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
Zolain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

**KAGU**  
**LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK





Igoa txapeldun binaka Baztanen eta buruz buru Bortziritan. MAIDER ANSALAS

## Erik Igoa herriko pilotaria bi txapelen jabe egin da

Baztango binakako txapelketan eta Bortziritako banakakoan nagusitu da umeen mailan

### IRUNE ELIZAGOIEN

Abenduaren hondarrean jokatatu ziren bi txapelketetan txapeldun izan zen Erik Igoa Ansalas pilotari etxalartarra.

Baztango binakako txapelketan, umeak A mailan lortuz Iguzkiagirre eta Erik Igoak

18-9 irabazi zieten Iñaki Leiza eta Enaitz Elizalderi.

Bertzetik, Bortziritako banakako txapelketan ere txapeldun izan zen Ibai Criadoren aurka 18-4 irabazi ondotik. Zorionak eta segi horrela!



IRUNE ELIZAGOIEN

## Larraburuko zaborrontziak lekuz aldatu

Larraburua ondoko zaborrontziak lekuz aldatu dituzte. Itxitura berriaren barrenean, birziklatzeko erabiltzen diren edukiontzi guztiak daude orain Usoa kooperatibaren parean. Behekolanda auzoan zegoen konpost gunea kendua dute, eta edukiontzi marroiak paratu dituzte herrian.



Ezkontzak, jaunartzeak, lagunartekak, kinto bestak, familia ospakizunak...

### HOTELA - BENTA - JATETXEA

Iruñea - Irun errep. 60km · 31760 ETXALAR  
T. 948 635 000 · F. 948 635 263  
info@etxalar.com · www.etxalar.com

Otsailaren 24tik aitzinera berriz irekita



### - KINTO BESTETAKO MENUA -

#### SARRERAK

Urdaiazpiko iberikoa Los Pedroches jatorri izendapena duena  
Ahate gibel moussea ogi txigortuekin eta etxeko gurinarekin  
Txipiroi-krepeak tintan  
Otarraixkak plantxan  
Limoizko sorbetea cavarekin

#### BIGARRENA AUKERAN

Azpizuna egur-parrilan patata frijituekin eta piperrekin  
Txerrikume erre entsalada berdearekin  
Bildots-txuletak egur-parrillan  
Aratxe-masail erregosiak ardo beltzarekin  
Legatza parrillan olio errearekin eta panadera patatekin  
Bakailao frijitua piper berdeekin eta tipula karamelizatuarekin

#### POSTREA

Etxeko pantxineta banilla-izozkiarekin

**Edariak**  
Kafea edo infusioa

**45 €**  
BEZa barne



## Anjel Urtxegi da Biltoki elkarteko presidente berria

Ilbeltzaren 29an egindako batzar orokorrean juntako bertze zenbait kide ere aldatu zituzten

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Joan den ilbeltzaren 29an Biltoki Elkarteko batzar orokorra egin zen eta bertze gai batzuren artean, urtero bezala junta berritzea egin zen. Azkenean urtean egondakoen artean Jose Luis Sirera Alvarez (lehendakaria), Xabat Matxikote Sein (idazkaria), Iñigo Migelena Matxikote (diruzaina) eta Korpus Txoperena Matxikote, Aitor Txoperena Eugi eta Imanol Retegi Etxeberria bokalek beraien kargua utzi zuten. Sartutakoak berriz Anjel Urtxegi Telletxea (lehendakaria), Amaia Goienetxe Iturbide (diruzaina), Sarai Etxarte Sun-sundegi (idazkaria) eta Ander



Anjel Urtxegi presidente berria.

Gonzalez Almandoz, Igor Antxordoki Mutuberria eta Miguel Jabier Hita Etxeberria bokal bezala. Animo kuadrila!!!

## Inauteriak antolatzeko lanetan ari dira herriko talde eta elkarteak

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Lerro hauek idazterakoan herriko hainbat talde eta elkarte inauteriak antolatzen ari dira jakinarazi digute baina oraindik dena zehazteke dago.

Joan den urtean Guraso Elkartetik proposatu zuten bezala, aurtengoan ere, gure etxeetako balkoiak apaintzera gonbidatu gaituzte. Animatu gaituzten!



ARTXIBOKOA

## Herri Kirol Jolasetarako prestatzen

Martxan hasiak ditugu berriz ere herri kirol taldekoak martxoaren 13tik apirilaren 10era egingen diren Nafarroako XXXV. Kirol Jokoetako txapelketan parte hartzeko. Talde polita plantatu da aurtengoan ere. Ea 2019an eta joan den urtean bezala, txapela lortzerik baduten. Animo ekipo!!



ARTXIBOKOA

## Arbolaren Eguna ospatu dute

Urtero bezala arbolaren eguna ospatzekoa zuten eskolan. Eguraldia lagun, otsaileko lehenbiziko ortziralean egitekoa zuten. Ondotik, beti bezala, berendu goxua dastatzeko aukera izan dute mendian. Aurten ere aitzurrez eta gogoz ongi hornituak joatekoak ziren neska-mutikoak-

**Ainhoa Alzuguren Mitxelena**  
Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Lan aferak  
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.  
BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

  
**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA  
EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...  
T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
zubiondojatetxea.com

**TTIPI-TTAPA**  
SARE SOZIALETAN  
Jarrai gaitzazu!  
  
facebook  
www.facebook.com/ttapi.ttapa

  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK  
  
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK  
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA



# Eskolako antzerkiak otsailaren 17an eginen dituzte

15:00etan hasita eta edukiera mugatuarekin, hiru antzezlan eginen dituzte

## NEREA ALZURI

Eguberri aitzinetik ezin izan zuten ohiko antzerki saiorik egin eskolan, baina prestakekin segitzen dute, eta otsailaren 17an paratu dute hitzordua.

Hiru antzezlan eginen dituzte: Haur Hezkuntzakoek *Otsoak* eta *antxumeak*; lehenbiziko

eta bigarren mailako ikasleek *Udaberria badator* eta kozkorenena sorpresa izanen da.

Antzerkiak 15:00etan hasiko dira eta edukiera mugatua izanen da: familia bakoitzetik bi lagun joan daitezke. Egun hauetan gonbidapenak presatzen aritu dira ikasleak.

## EMOT dokumentua aurkeztu du udalak herritarren aitzinean

### N. ALZURI

Ilbeltzaren 29an, udalak deituriko bilera parte hartzailea egin zuten eskolan. 25 bat herritar bildu ziren lurraldearen okupazio-estrategia eta eredia (EMOT) dokumentuaren aurkezpena.

2017an, udalak eta Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak, Udaleko Plan Orokorra abiatzeko hitzarmena sinatu zuten eta 2018an hasi zen Udaleko Plan Orokorra berritzeko prozesu parte hartzailea. Ge-

rozitik, sei bilera egin dituzte dira eta banaz bertze 30 herritarrek parte hartu dute euren kezka eta iritziak partekatuz. Arrata enpresako profesionalak bideratu dute prozesua eta herria hainbat arlotan nola hobetu aztertu dute azken bi urteetako saioetan: herri eta landa eremua, mugikortasuna, eraikuntzak, karrikak...

Hondarreko saioan, egindako prozesu parte hartzailearen ondorioak biltzen dituen dokumentua aurkeztu zuten. Dokumentu hori Nafarroako Gobernura bidaliko dute.



JOEL GIL

## Futbolari gaztetxoak

Bertze urte batez, Osasuna Fundazioak futbol eskola paratu du martxan herrian. Adinaren arabera bi taldetan banatuta, ortziraleroko frontoian biltzen dira Joel Gil lesakarra entrenatzaile dutela. Duela gutti taldeko argazkia atera dute denboraldi honetako arroparekin.

## Bortzirietako Itzuliaren barrenean herrian ibilaldiak eginen dituzte

### N. ALZURI

Irungo Mendizaleak taldeak Bortzirietako Itzulia antolatu du hainbat etapatan. Guztira zortzi ibilaldi antolatu dituzte eta herriko inguruetan ere ibiliko dira mendizaleak.

Apirilaren 2an, Mendieder eta Ekaitzako kaskoetan bar-

na joan- etorria eginen dute. Uztailaren 2an eginen duten mendi ibilaldia ere herritik abiatuko da, Izu eta Biadintz gainetatik Aritxulegira ailegatzeko. Informazio gehiago [www.irungomendizaleak.com](http://www.irungomendizaleak.com) webgunean dago. Izen-ematea ere bertan egin daiteke.



Denda. 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
**Erreformak, etxe berriak**  
**Lantegietako mantenu lanak**

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak



**F. LANCHAS**

Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787



GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA



## «Gero eta jende gehiagok sentituko du aldaketa erradikalerako beharra»

**BEÑAT IANTZI ETA ARITZ ARRIETA** GKS GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTAKO KIDEAK

2019ko otsailean aurkeztu zuten GKS Gasteizen, eta geroztik lanean ari dira, baita eskualdean ere. «Gizartean gertatzen diren mugimenduen gibelean dauden sakoneko arrazoiak ulertu eta mahaigaineratu» nahi dituztela kontatu diote Iantzik eta Arrietak TTIPI-TTAPARI

### G. PIKABEA

Otsailean hiru urte beteko dira Gazte Koordinakunde Sozialista aurkeztu zutenetik. «Gazteen esparrutik kapitalismoak sortzen duen miseriaren aurka borrokatzeko asmoz» hasi zuten ibilbidea, eta geroztik lanean segitzen dute. Eskualdean ere «indartsu» daudela eta «oinarri sendoa» dutela diote Beñat Iantzi (Lesaka, 2000) eta Aritz Arrietak (Elgorriaga, 1998). Burgesian jarri dute arreta, eta «soldaten gelditzea, ongizate-estatuaren gainbehera, estatuaren jarraera totalitarioa edota kontrol soziala... burgesiaren irabazien errentagarritasuna mantentzeko mekanismoak» direla salatu dute. Kritiko mintzo dira «alderdi politiko guztiek», baita bertze gazte erakunde batzuekin ere, «alderdi politiko-koen menpe» ari direlako. Gero eta gehiago direla eta «militanteen konpromiso eta diziplina altua» nabarmendu dute Iantzik eta Arrietak.

### Hiru urte hauen inguruan nolako balorazioa eginen zenukete?

Mugimendu gaztea dela kontuan hartuta, urte guttitan erreferentzia politiko nabarmena lortu du gazte sektorean, Euskal Herrian gehienbat. Kantitatez goranzko joera nabarmena izan du. Kalitatiboki, militanteek planteatzen diren helburuekin duten konpromiso eta diziplina altua azpimarratzekoak dira.

### Nola izan zen sortze prozesua?

Hutsetik hasitako proiektua da. Bi faktore dira erabakigarriak. Batetik, Ezker Abertzaleak borrokarako espazio gisa instituzioak hartu izana; eta bertzetik, 2008an hasitako krisia. Honek ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna eragin zuen, bizi dugun mundu honetan etorkizuna marraztea zailduz. Ondorioz, etorkizuna gure gain hartu eta alternatiba sortzearen beharra ikusi zen. Bide horretan, ikasle eta gazte mugimenduan eztabaidak sortzen hasi ziren. Eztabaida horien ondorioz, estrategia berri eta bateratuaren beharra sortu



Beñat Iantzi lesakarra.

**«PANDEMIAK 2008AN HASITAKO KRISIA AZKARTU EGIN DU»**

zen. GKS prozesu horren ondorioa da.

### Eskualdean nolako indarra du?

Gu Malerreka, Baztan eta Bortzirietan antolatzen gara. Hasi berriak izateko, indartsu gaudete. Dagoeneko badugu oinarri sendoa, eta inguruan gero eta interes zabalagoa sumatzen dugu. Antolatzen ditugun ekimenek beti erantzun ona dute. Azpimarratzekoak dira azken bi mobilizazioak. Azaroan Elizondon egin genuen kontzentrazioa 70 bat lagun hurbildu ziren, eta urtarrilean Iruñean egin genuen manifestazioa 50 lagunetik goiti hurbildu ginen eskualdetik.



Aritz Arrieta elgorriagarra.

**«PLANTEATZEN DUGUNA EZ DA EGUN BATEKO MATXINADA»**

Mugimendu gaztea izanik zenbaki adierazgarriak iruditzen zaizkigu.

### Mugimendu sozialistaren barrenean, GKSz gain hainbat egitura daude. Nolako harremana duzue?

Bertzeak bertze, Itaia, Ekida, Gedarkazeta... daude eta mugimendu sozialistaren barrenean gauden guztiok estrategia bateratua dugu, helburu berdinak ditugu. Bakoitza bere esparruan ari den arren, era koordinatuan antolatuko gaude.

### Sortu berritan 2008ko krisia aipatzen zuen GKS, eta orain bertze krisi bat...

Krisia berdina da, pandemiak 2008an hasi zena azkartu bertzerik ez du egin. Krisiak, orokorrean, kapitalismoaren funtzionamenduaren berri ematen digu. Burgesiak aberastasuna metatzeko ezintasun konstantea adierazten du. Ondorio sozial zein politikoak ditu eta elkarrekin lotuak daude. Batetik, langileriaren pobretze orokorturantzko fase baten hastapenean kokatzen gaitu, proletarizazioa deitu izan zaiona. Honen adierazle garbiena soldaten gelditzea da. Geroz eta erosmen ahalmen ttikiagoa dugu. Prezioak goiti doaz, gasolina, argia, janaria... Baina soldatak ez dira igotzen. Bertzetik, aitzinekoaren ondorioz sortu den eta sortuko den ezegonkortasun sozialaren jabe da burgesia, eta prestatzen ari da. Ongizate-estatuaren gainbeherarekin, estatua geroz eta forma totalitarioagoa hartzen ari da: askatasun politiko zein zibilak kendu dizkigute. Horren harira, azken albiste Segurtasun Nazionalaren Lege erreformatzeko lege proiektua izan da. Ez hori bakarrik. Gastu militarerako diru partidak areagotzen dituzte baina bertze esparru guztietan murrizketak egiten dituzte. Funtsean, kontrol soziala areagotzen ari da eta Covid pasea horren adibidea bertzerik ez da. Burgesiak martxan paratzen dituen mekanismoak dira, bere irabazien errentagarritasuna mantentzeko.





Beñat lantzi ezkerrean eta Aritz Arrieta eskuinean. Arrieta joan den ikasturtean sartu zen GKSn, eta lantzik, berriz, ikasturte honen hasieran bat egin du GKSrekin.

### **Alderdi politiko guztiekin kritiko agertu zarete...**

Aitzineko galderaren segida da. Aipatutako aldaketak, krisi soziala eta abar, esturkturalak dira: ez daude borondate politiko indibidualen esku. Aldaketak kapitalismoaren garapenaren tendentzia objektiboaren ondorioz gertatzen dira. Alderdi politikoek kapitalismoak garapen efektiboa izateko bakarrik hartzen dituzte neurriak. Adibidez, biztanleriaren jokabidea moldatu edozein neurri onar dezan, beldurraren bidez... Gainera, egin nahi dituzten erreformak egiteko estatuak ez dauka dirurik, defizitarioa da. Beraz, dirua duenak bakarrik egin ditzake; eta kasu honetan estatua finantzatzen duten elite finantzarioek. Estatua ez da entitate neutrala, klase interes jakin batzuk defendatzen ditu, burgesiarenak, hain zuzen. Estatuan eta bere instituzioetan parte hartzen duten alderdiek, funtzio jakin bat betetzen

dute; eta funtzio hori burgesiaren eta honek sortzen duen miseria jasaten dutenen artean bake soziala mantentzea da. Espainian, «historiako gobernu progresistena» ari da hori egiten, ezkerreko alderdi politiko aunitzen babesarekin. Garbi utzi nahi dugu kritika politikoa dela eta ez pertsonala. Alderdi politiko guztien funtzioa seinalatzen dugu.

### **Gazte erakunde batzuekin ere kritiko agertu zarete...**

Kritiko agertu garen gazte antolakundeak aipatu ditugun alderdi politikoen menpe daude; sistema kudeatzen duten horien bide beretik doaz. Batzuek «sozialismo» hitza darabilte haien diskurtsoetan. Baina sozialismoa ez da eraikitzen sistemak sortutako miseria kudeatzera mugatzen diren alderdien gidaritzapean. Sozialismoa, hasteko eta oinarritzko printzipio gisa, langile-riaren interesak defendatuko dituen antolakuntza independentearekin hasten da, insti-

tuzio burgesetatik kanpo. Burgesiak eta patronalak finantzaturako eta gidaturiko instituzioen bitartez, horiek interesak baino ez dira defendatzen, eta ez langile-riarenak.

### **Zer diozue eskualdeko gazteez?**

Orokorrean despolitizazio nahiko orokortua dugu, bai gazteen artean, baita helduen artean ere. Horretara bideratu gaituzte. Orain arte soldata onak eskaini dizkigute, eta eroso bizi ahal izan gara. Hala ere, baditugu zailtasunak, eta gero eta handiagoak dira: gurasoen etxetik ateratzea ia pentsaezina da, lanean hasten garenean soldata irrigarriak dira normalean, azken urtean lagunekin elkartzeko espazioa ere kendu digute... Eta joera okerrera izanen da. Aspalditik aipatzen da gure gurasoek baino bizi maila okerragoa izanen dugun lehenbiziko belaunaldia garela, eta hori errealitatea da. Aipatu dugun guztiak hurrengo urte luzeetan bere horretan segituko duenez, gero eta jen-

de gehiagok sentituko du al-daketa erradikalerako beharra.

### **Zein erronka dituzue?**

Helburua hazten segitzea da. Gizartearen gertatzen diren mugimenduen azaleko irakurketa egin ohi da eta gure erronka mugimendu horien gibelean dauden sakoneko arrazoiak ulertu eta mahaigaineratzea da. Planteatzen duguna ez da egun bateko matxinada, baizik eta urte luzez garatzen joanen den prozesua.

### **Zerbait gaineratuko zenukete?**

Gaur egun, komunismoa hagitz gaizki ikusia da, XX. mendeko porroten ondorioz eta horien haritik burgesiaren diskurtsoa nagusi delako. Ez ditugu esperientzia horiek errepikatu nahi; horiei kritika eginez abiatu gara. Bertzetik, krisiek erakusten digute kapitalismoa ez dela gai bere buruaren gainbeherari irtenbidea emateko. Komunismoa oraindik egiteke dagoen eta gainbehera horri irtenbidea emateko gai den prozesua dela ulertzen dugu.

## Desfibriladorea erabiltzeko kurtsoa egiteko dirua bilduz

Urtarrileko azken asteburuan, inauterien ordean, hainbat jarduera egin dituzte formakuntza finantzatzeko

### MAIDER PETRIRENA

Urtarrilaren azken asteburuan, desfibriladorearen erabilera ikastaroa finantzatzeko hainbat jarduera egin ziren. Berez, inauterietako asteburu ere bazela kontuan hartuz, karrozarik ez, baina animazioa izan zen. Larunbat goizeko hamaitan zapatila eta boneta tiraketa eta toka lehiaketak egin ziren. Ondorengoak izan ziren sailkapenak eta eskuratutako sariak:

**Toka txapelketan:** 0-12 urte bitartekoak: 1. Nahia Portu (5 euro); 2. June Gastesi (3 euro) 3. Ibai Maritxalar (txutxeak). 13-100 urte bitartekoak: 1. Iñaki Gonzalez (gazta); 2. Maite Ibarra (5 euro), 3. Ion Anzizar (2)

**Zapatila jaurtiketa:** 0-12 urte bitartekoak: 1. Ibai Petrarena (5 euro); 2. Kemen Sagarzazu (3 euro); 3. Eneko Sagarzazu (txutxeak) 13-100 urte bitartekoak: 1. Ion Anzizar (gazta); 2. Asier Zugarramurdi (3 euro); 3. Aitor Alzuri (2 euro).

**Boneta jaurtiketa:** 0-12 urte bitartekoak: 1. Ane Gorraiz (5 euro); 2. Sara Gartzia (3 euro); 3. Enaitz Agesta (txutxeak) 13-100 urte bitartekoak: 1. Asier Zugarramurdi (gazta); 2. Mikel Agirre (3 euro); 3. Julen Ibarra (2 euro).

16:00etan herri kirolen txanda izan zen. Taldeak burbuilaka banatuz parte hartze handia izan zen.

### Mozorro lehiaketa

18:00etan mozorro lehiaketan parte hartzeko aukera ederra izan zen. Inauterietako aste-

burua zela aprobetxatuz mozorro politik ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek, eguraldi polita lagun. Aitzinean aipatutako adin tarte berak erabiliz, 0-12 urte bitarteko artean txapeldun Ander Sarraitea izan zen, bigarren Ane Jauregi eta hirugarren Xuban Lopez.

Helduen artean, berriz, Luis Mari Retegi izan zen txapeldun eta bigarren Eneritz Lanz. Berez, karrozarik ez da izan aurtentzen, baina bai mozorroak eta ongi pasatzeko gogoak.

### Dantza, bingoa eta taloak

Eguraldia lagun musika eta dantzan ibiltzeko ere tarte ederra izan zuten larunbat arratsean. Segidan bingoan jostatu eta sari ederrak eskuratzeko parada ere izan zuten. Lehen partidatan bingoa Endika Beltranek lortu zuen eta lerroa Asier Iturraldek. Bigarren partidatan berriz bingoa Hugo Arellanok eskuratu zuen, lerroa berriz Nahia Bertizek. Bingoa egin zuten bi irabazleek Doneztebeko Ameztia ostatuaren eskutik zerrikume errea jateko bonoa eta lerroa lortu zutenak, berriz, Martikoko lotea izan zuten.

Egun ederrari bukaera ezin hobea eman zitzaion herriko talogileen eskutik talo gozoak dastatuz. Plazara ateratzen diren aldioro bezala, arrakasta handia izan zuten.

Lerro hauen bidez jarduerak prestatu eta batean nahiz berzian parte hartu duten guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, baita kolaborazio lanak egin dituzten guztiei ere. Eskerrak aunitz.



Bi kategorietan saritutako mozorroak. JON ANZIZAR



Herri kiroletan ere parte-hartze handia izan zen. MAIDER PETRIRENA



Toka, zapatila jaurtiketa eta boneta jaurtiketa txapelketetako sarituak. J. ANZIZAR



Plazan animazio handia izan zen egun osoan. MAIDER PETRIRENA



## Nora Salbotxek bere liburua aurkeztuko du otsailaren 18an

'Askatu edo moztu: euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak' ezagutzera ematera dator liburutegira

### MARGA ERDOZAIN

*Askatu edo moztu: euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak* izeneko liburuaren inguruan ariko da Nora Salbotx egilea heldu den otsailaren 18an (ortziralea) liburutegian. Hitzordua 19:30ean izanen da.

Salbotx Haur Hezkuntza eta Psikopedagogian graduatua da, Landa Eremuko Hezkuntzan aditua eta Hezkuntza eta komunikazioan masterra egin du. Gaur egun Amairuko eskolako zuzendaritzan eta Baztango Herrietako Eskoletako koordinazioan dabil. Irakasleen formakuntzan aritzen da hizkuntza idatziaren didaktika eta landa eremuko hezkuntzaren ildoak jorratuz. *Xorrotx eta fin* podcast izeneko egilea ere bada [https://erran.eus/komunitatea/Nora\\_Salbotx](https://erran.eus/komunitatea/Nora_Salbotx). Hausnarketarako, batasunerako eta borrokarako deia egiten du Nora Salbotxek bere liburuan eta bere jardueratan, beti euskal hezkuntzaren prozesuan murgilduta: gairik nagusienak aitortza, emakumean, hezkuntza eta euskara



Nora Salbotx irakasle eta idazlea.

izanda. ТИПИ-ТҒАРАИ elkarrizketa mamitsua eskaini dio berriki (797 zk.)

### Poesia eta sormen tailerrak

Otsaileko poesia tailerraren hitzordua **otsailaren 14an** izanen da eta landuko den poeta honako hau izanen da: Julia Uceda.

**Otsailaren 15ean** (asteartean) sormen tailerraren bigarren hitzordua egingen da.



ARTXIBOKOA

## Erraldoien konpartsa martxan

Aspaldiko egitasmo bat martxan jarri nahi da gurean, erraldoien konpartsa alegia. Lehendabiziko pausoa eman da, interesa duten guztiak (musikariak, eramaileak, dantzariak...) elkartzeara eta aztertzea nondik eta nola abiatzen ahal den ekimen hau. Ea itxura hartzen duen eta bestetarako gauzatzen den.

## Otsaileko zinema emanaldiak prest dituzte gurasoek

Erreka Guraso elkarteak otsailarako antolatutako zinema emanaldiak hauek izanen dira. Otsailaren 13an *Pikatxu* (euskaraz) eta otsailaren 27an *Luca* filma. Hitzorduak 17:00etan izanen dira. Bazkideek euro bat ordainduko dute eta bazkide ez direnek bi euro.

## Irache Kontsumitzaile Ellartearen orduak

Mankomunitateko kontsumitzailearentzako bulegoaren zerbitzua otsailaren 18an (ortziralea) gurean izanen da. Irache Kontsumitzaile Elkartearen doako zerbitzu hau erabili nahi dutenek hitzordua eskatzeko 948451746 telefonoa deitu behar dute.



**Elizagibela Promociones S.L.**

**ETXEBIZITZA PROMOZIOA**  
18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL

[www.elizagibelapromociones.com](http://www.elizagibelapromociones.com)  
[elizagibelapromociones@gmail.com](mailto:elizagibelapromociones@gmail.com)

**T. 643 466 998**



**ERAIKINA EGITEN HASIA!**

- 2 (80 m<sup>2</sup>), 3 (90 m<sup>2</sup>) eta 4 (100 m<sup>2</sup>) logelako etxebizitzak trasteroarekin
- Doneztebeko Elizagibela karrikan
- Lokal komertzialak



Ilbeltzaren 25ean bildu ziren Donezteben proiektua hasteko. UTZITAKOIA

## Iratzetik papera egiteko proiektua abiatu dute

Landa-ingurunean gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonengan eta ikasleengan eragin nahi du

### TTIPI-TTAPA

*Iratzetik paperera* proiektua abiatu da, ilbeltzaren 25ean Malerreka Common Zerbitzuak mikrokooperatibako Doneztebeko bulegoan egindako bilerarekin. Proiektu horren helburu nagusia papera eskuz fabrikatzeari buruzko ezagutza sortu eta transmititzea da, bai gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak bai lanbide-heziketa zikloetako ikasleak ekintzailatza eta laneratzea bultzatzeko tresna gisa.

Proiektuak elkarren artean lotura duten hiru behar ase-

bete nahi ditu: gizarte-bazterkeria jasateko landa-eremuan arriskuan dauden pertsonen prestakuntza eskaintzea, laneratzeko aukerak hobetzeko; Kantauri isurialdean iratzearen ugaritzeak sortu duen arazoa modu iraunkorrean kudeatzea; eta belaunaldien arteko eta sektoreen arteko ezagutzaren transmisioa sustatzea, lanbide zaharrak berreskuratuz eta jasangarriagoak egiteko moduak sustatuz. Hau guztia oinarri artistiko eta kulturalerako berrikuntza-metodologia ireki eta kolaboratiboen bidez landuko da.

Don Bosco LHII (Gipuzkoa) da proiektuaren koordinatzailea, bertze partaide hauekin batera: Iruñeko Salestarren Ikastetxe Politeknikoa, Malerreka Common Zerbitzuak mikrokooperatiba, Tecnalia Research and Innovation eta Conexiones improbables (Gasteiz). Proiektu honek Espainiako Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eta Europako Gizarte Funtsaren laguntza du.

### Ezagutzaren transferentzia

Hiru alderdi landuko dituzte, eta erakunde bakoitzak arlo jakin batean duen ezagutza eta esperientzia eskainiko du. Alde batetik, nekazaritzaren eta basogintzaren ikuspegitik, iratzeari erabilera bat aurkitu nahi zaio, landare honek basoetan sortzen duen arazoari irtenbidea emateko. Bertzetik, iratzetik abiatuta lor daitekeen zuntz zelulosikoaren ezaugarriak aztertuko dira, ateratzen den paperaren aukerak aztertuko. Aipatu bezala, paper hori artisauek erabiltzen da. Eta, azkenik, lortutako paperaren gaineko inprimaketateknikak aztertuko dira, baita akaberako teknikak ere.

Prozesuan prestakuntza-zentroetako ikasleak eta Malerreka mikrokooperatiba sartuko dira, azken honek bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizareratzea baitu helburu. Hurrengo 15 hilabeteetan landuko den proiektuari ekin zaio, 2023ko martxoan akituko dena.

## Malerrekako pilota txapelketako finalak martxoaren 5ean

Hasiera batean otsailaren 19an jokatzekoak baldin baziren ere, azkenean martxoaren 5ean jokatuko dituzte Erreka elkarrekin antolatutako Malerreka 20. eskuz binakako pilota txapelketako finalak Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Hau irakurtzerakoan finalista guztiak zein diren jakina izanen da, baina idazterakoan elite mailakoak bakarrik erabakiak ziren: Ugaitz Elizalde iturendarra (Zugarralde) eta Urrozola (Pagazpe), Exposito (Hernani) eta Aizpurren (Tolosa Aurrera) kontra.

## 'Antes de la última casa' aurkeztu du Elixabet Badiolak

Donamarian bizi den Elixabet Badiola Leon idazle donostiarra *Antes de la última casa* bere azken liburua aurkeztu zuen ilbeltzaren 28an Doneztebeko liburutegian. Badiolaren liburuak heriotza du ardatz eta berak dioen bezala, «heriotzaz mintza gaitzke larritasunik edo beldurrik gabe». Lehendik ere zenbait liburu argitaratuak ditu Badiolak: *Poemas de mujer* (1974), *Glicina rota* (2014), *Suenan muchas campanas dentro de nosotras* (2015) eta *Aita, aún quedan nueces* (2017).

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDDURRENBORDA**  
Baztan Bidasoko sagardotegiak

Dolarea  
Eskualdean egindako sagardoa  
Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

**EDERKI** tailerra

**CITRÖEN**  
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

**24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA**

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525



## Elgorriagako Balnearioari diploma Madrilen

Elgorriagako bainuetxeak kalitate turistikoaren 'Q' markaren ziurtagiria jaso du Madrilgo Cibeles jauregian. Ziurtagiri hau 2021ean 'Q' marka lortu duten edo berriro duten enpresei eman zaie. Geldialdi teknikoaren ondotik, otsailaren 11n irekiko ditu berriz ere ateak, hainbat berrietasunekin.



UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKOIA

## 'Negu hurbilak' grabatzen Zubietan

*Negu hurbilak* izeneko filma grabatzen dabilta oraindik Zubietan. Ekain Albiteren zuzendaritzapean, *Ane* pelikulan famatu eta Goya saria irabazi zuen Jone Laspiur aktorea eta Kataluniako unibertsitateko hainbat gazte ari dira, besteak beste. Argazkian, Etxekeneko bordako atarian ageri dira.

## 'Literatura geraldia' izanen dira eskualdean

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea da udaberriaren eginen den kanpaina honen helburua

### TTIPI-TTAPA

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea, herritarren euskarazko kultur kontsumoa indartzea, euskal liburugintza indartzea, liburutegi publikoen erabilera bultzatzea eta esperientzia literarioak partekatzea da *Literatura geraldia* programaren helburua.

Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta Sakanako Mankomunitateak antolatu dute programa eta hamabi saio antolatu dituzte aurtengo udaberriarako eta udazkenerako. Hamabi ekitaldi horietatik zazpi TTIPI-TTAPA aldizkariaren eremuan izanen dira. Hiru ekintza mota izanen dira: literatura solasaldiak, lantegiak, eta irakurraldi musikatua.

### Literatura solasaldiak

**Martxoaren 26an**, Aiora Jaka itzultzaileak itzulitako *Nirliit* liburuaren inguruko solasaldia Lesakako Arrano Elkartean 11:00etan.

**Apirilaren 22an**, Mikel Antza idazlearen *Arroz Urez* liburuari buruz mintzatuko dira Berako Liburutegian 18:00etan.  
**Apirilaren 28an**, Nerea Loiolaren *Epizentroa* ipuin liburuaren inguruko solasaldia Arantzako Liburutegian 17:30ean.

**Apirilaren 28an**, Aiora Jaka itzultzaileak itzulitako *Nirliit* liburuaren solasaldia izanen da Erratzuko Lixutegian 19:00etan.

### Lantegiak

**Apirilaren 27an** *Nola iruzkin du liburu bat?* galderari erantzuteko hitzaldia emanen du Ibon Egañak Leitzako Liburutegian 18:30ean.

**Urriaren 19an** *Nola iruzkin du liburu bat?* hitzaldia emanen du Ibon Egañak Elizondoko Arizkunenean, 19:00etan.

### Irakurraldi musikatua

**Apirilaren 23an**, *Gogoan dut* liburuaren inguruko irakurraldi musikatua egingo dute Aritz Galarraga idazleak eta Ibon RG musikariak Lesakako Harriondoan 19:00etan.

**ORBELA**  
SENDERSMOA ATERPETA  
**BEINTZAKO OSTATUA**  
Idoia - Mikel  
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
[www.orbela-beintza.com](http://www.orbela-beintza.com)

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**  
  
facebook  
[www.facebook.com/ttapi.ttapa](http://www.facebook.com/ttapi.ttapa)

**MINIESKABAZIOAK**  
MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK  
enpresa eta partikularrentzat  
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

Ilogailuen instalazioak.  
Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.  
**T. 948 232 400**  
[www.inelsazener.com](http://www.inelsazener.com)



# AURTITZ-ITUREN-ZUBIETA



Joaldunak eta hartza, Iturengo karriketan. UTZITAKOAK



Aurtizko joaldunak, abiatzeko prestatu ondotik.

## Joare doinuak berriz ere bueltatu dira inauterietan

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, ikusle guttiagorekin, baina harat-honatean ibili dira joaldunak eta mozorroak

### TTIPI-TTAPA

Joan den urteko derrigortutako geldialdiaren ondotik, Aurtitz, Ituren eta Zubietako joaldunek berriz ere elkartzeko aukera izan dute inauterietan. Inauteri Astelehenean 86 joaldun bildu ziren Iturenera. Urtetan eta urtetan taldea gidatu duen Lazaro Erregerenak ez zuen aurten goan inauterietan parte hartzerik izan eta joaldunen batek bere aurpegiarekin maskara ere paratu zuen. Bere ordeztan, Ismael Elizalde eta Unai Bereau izan ziren gidari astelehenean.

Asteartean Zubietara bisita bueltatu zuten. Hemen 52 joaldun bildu ziren. Mozorroak ere ibili ziren, nahiz eta bertze urtetan baino gutxiago izan. Astozkene txertoa ematen zuen ambulanzia izan zuten Iturenen eta Zubietan eta Picassoaren Gernika biziduna ikusgarri irudikatu zuten beste mozorro batzuk Zubietan. Kanpoko jendea ere ez zen hainbertze bildu, horretarako eskaera berezia egin baitzuten bi herrietatik. Gainerakoan, otorduak eta bertze ospakizunak egin zituzten, segurtasun neurriak betez.



Zubietako joaldunak Iturengo plazara ailegatzen, inauteri astelehenean.



Mozorroak ere atera ziren, batzuk ambulanzian, Astozkene txertoarekin.



Joaldunak eta mozorroak Zubietako plazan.



Zubietan mozorroek egindako 'Gernika' ikusgarria.



# OIHANGINTZA 2022



Baratzezaintza  
Lorezaintza eta abeltzaintza  
Albaitaritza produktuak  
Maskotentzako osagarriak  
Ehiza eta arrantza

[ventabiok.com](http://ventabiok.com)

ZELAI





# LANDAREEN ETA INGURUMENAREN ZAINKETA

**B**aionako Lafitte lorezaintza enpresako Jean Michel Olai-zolarekin izan gara, eta enpresaren historia eta bilakaera izan ditu hizpide. Gainera, Euskal Herriko landare-diaz aritu gara eta hainbat aholku eman dizkigu gure landareak eta ingurumena zaintzeko.

aholkularitza zerbitzua ere badute. «Hurbil egon nahi dugu, bai bezeroengandik, baita hornitzaileengandik ere».

## MANTENTZE-LANEN GARAIA

Landareen zainketari dagokionez, fruitu-landareak inausteko sasoiak da otsaila, «hotza egin badu ere haize hegoa hastean fite piztuko baitira, eta hobe da inaustea fruituak errazago emateko». Zuhaitzak landatzeko garaia ere bada; sagarra, udarea, grezia, arana, intxaurra, gaztaina eta pikua, bertzeak bertze, «udaberrian piztean erroak eginak izateko». Baratzetik dutenendako aukera ona izan daiteke masusta gorria, marrubia edota andere-mahats beltza.

Zurtoinetan gisua eman behar da orain, «ahulduta dauden mamorroak hiltzeko, udaberrian umeak egiten hasi baino lehen». Baratzetik ongaria emateko unea ere bada, «eta lurrean gisua ematen ahal da pixka bat arintzeko». Honez gain, soroak garbitzeko garai aproposa da, «hezetasunarekin goroldio aunitz agertzen baita, eta hau kentzen bada udaberrian belar berdea aterako da».

## HOTZARI AURRE EGINEZ

Egun hotzak utzi dizkigu urtarrik, eta landareak hormatik babestea komeni da. «Platerak ez dira loreontzien azpian utzi behar, neguan landareek ez dute hainbertze ur behar eta heze-

## HISTORIA LUZEKO ENPRESA

30eko hamarkadan hasi zen Lafitteren ibilbidea, «Lekornekoko Germain Lafitte laborariaren mintegiarekin». Garai hartan, hemengo gaztainondoak gaitasun batengatik hiltzen ari ziren, eta bi misiolarik Japoniako gaztainak ekarri zituzten. Lafittek, gaztainondo japoniarra hemengora txertatzean, honek gaitza hartzen ez zuela ikusi zuen. Lan horretan hasi zen eta pixkanaka mintegia muntatu zuen.

1989an aldaketa handia izan zuen enpresak; «hiriak handitzen hasi ziren, gero eta jende gehiago zuten, eta urrun gelditzen ari zen mintegia Lekornen. Horregatik, Baionako dendak hau ireki zuten. Orduan gehitu zituzten tresnak, haziak, lurrustelak... denak baratzetaren inguruan». Pixkanaka handituz joan zen enpresa, «4-5 langile hasi ziren eta orain 26 gara», eta eskaintza ere aunitz zabaldu dute; «dekorazioko artikulak, kanpoko etzaulki eta hamakak, maskoten zona... hurbileko produkzioa eskaintzen saiatzen gara beti, kanpotik ekarri beharrean». Bezeroak laguntzeko

**MENDI LANAK**  
EGUR ATERATZEAK  
ESKABAZIOAK  
GARRAIOAK  
GARBITZE MEKANIKOAK  
ITXITURAK

Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA  
altzuris@gmail.com - Tel. 948 450 504  
M. 659 867 287 - 699 461 394

**SU EGURRA ETA PIKETEAK SALGAI**

**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoa | Publizitatea

**kulturkari.com**



## Udaberria heldu da!

**Zuhaitzak eta fruitu landareak landatzeko garaia da!**

Bertako motak, hemen ekoiztuak.

Loreak, tresnak, lore huntziak, kanpoko altzariak, maskotak.

**Aukera handia eta eskaintza zabal!**



84, 1945 maiztaren 8ko etorbidea

64100 Baiona

tel: 00 33 5 59 42 24 42

www.lafitte.net



**Berria!**

**Erlezaintzarako tresnak eta beharrezkoak hemen salgai!**



# *Udaberria dator, presta zaitez!*

## *Aukera paregabea Landiflor lorendan*

Eskaintza zabala denboraldiko loreetan, landareetan eta baita fruta-arboletan ere. Loreontzi, ongari eta lorategirako osagarriak zuen esku.

Landiflor-en ere Venta Peio  
fideltasun txartela  
erabili daiteke.



## Landiflor

Landiflor zure lorendenda egunero irekia: 9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00  
Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com







tasuna edo ura baldin badute bertan, arriskua dago hormatu eta landarean hondamenak egiteko». Landare sentsibleetan, zitrikoetan adibidez, «gomendagarria da oihal bat paratzea hostoen gainetik, eta pareta baten kontra edo balkoi baten azpian paratzea eguraldi txarretik, hotzetik eta haizetik babesteko». Hotz arriskua akitzean, «otsail erditsutik aitzinera, oihala kendu eta puntak moztu behar dira, landarea berpizteko eta loreak ateratzeko».

zuhaitzak landatzeko sentsibilizaizo kanpainak abiatu dituzte, haien artean gaztainondoa». Izan ere, «gaztainak duen gaitz makurrena da ahaztu dugula. Gure kulturaren galtzen ari da, eta edozein gaitz baino makurragoa da interes eza».

#### KANPOKO ESPEZIEEN INBASIOA

Espezie exotiko batzuk ingurumenerako kaltegarriak izan daitezke. «Beti izan dugu ohitura munduan zehar ibiltzeko eta espeziak leku batetik bertzerera eramateko, baina hemen nola moldatzen diren ikusi behar da. Eukaliptoak, adibidez, lurra aunitz hondatzen du, ekonomikoki ona da baina ekologikoki ez. Panpa-lezka izeneko bertze landare bat, luma itxurako loreak dituena, aski kaltegarria da eta debekatuta dago, haziak alde guzietara botatzen baititu. Horrelako hainbat kasu daude; budleia, japoniar piper-belarra... kaltegarriak direnak».

Arazoak saihesteko, beharrezkoa da jendea informatzea eta batez ere «gure etxeari eta auzokoen baratzeari zer komeni zaion jakitea, eta horretarako ingurura begiratu behar dugu».

#### GAZTAINONDOA

Lafitten landareren bat nabarmentzekotan, gaztainondoa da garrantzitsuen, eta «japoniarrak hainbat abantaila ditu». Alde batetik, «gaitzen kontra hoberena da, bertzeak bertze Tintaren kontra, landarea ihartu eta beltza uzten duena». Bertzalde, «pinuarekin arazoak izan dituzte EAEn, adibidez, eta eukaliptoak landatu nahi dituzte egurra azkar eta erraz ematen duelako. Baina ekologikoki katastrofe bat da hori; hemengo landarea ez delako, lurra aunitz nekatzen duelako eta su erraz hartzen duelako. Hortaz, bertze

## LARRETXEAK EGURRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri. Piketeak eta sutarako egurra.



Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427



Espezialistak eremu guztietan

profesionaletik profesionalera!

STIHL®

## AGRICOLA BIDASOA

Lorezaintza eta nekazaritza makinaren salmenta eta konponketa  
Auzolan, 16 - Irun - 943 627 331 - agribidasoa@gmail.com

### HUSQVARNA® MARKAKO BATERIADUN PRODUKTU GAMA



BATTERY EXPERIENCE SINCE 1973 HUSQVARNA GROUP

KERIK GABE

SOINURIK GABE

ERABILTEKO ERRAZA

BATERIA BAKARRA



Husqvarna

BANATZAILE OFIZIALA

BB BLOK BAT TALLERES

Santiago 85 | ELIZONDO  
T 948 580 898

www.biokbat.com



## Santiago bidea zilarrezko bidetik egiteko asmotan

Dagoeneko taldetxo bat animatu da eta otsailaren 28ra arte zabalik dago izena emateko epea

### P. IRASTORTZA

Hogeita bosgarren buletinaren 44. orrian agertu bezala eta elkarteak kide batzuk hala eskatuta, aitzinera doa Santiago bideko zilarrezko bidearen egitasmoa.

Sevillan du irteera 2022an egin nahi den ia mila kilometroko ibilbideak, gero, Badajoz-Caceres-SalamancaZamora eta Ourensen barna, Santiagon bukatzeko.

### Izen-ematea hilaren 28a arte

Badago animatua dagoen eta izena emana duen taldetxo bat. Bertze norbaitek bidea egiteko asmoa izanez gero, otsailaren 28a izanen du apuntatzeko azken eguna, Doneztebe telefonora deituz.

Nahiz eta jakin Arkupeak elkarteak atek behar dituzten aferetarako irekiak daudela, joan-etorria, noiz eta nola egin eta gainerako nondik norakoak

partaideen artean erabakiko dituzte. Era berean, jakinarazi nahi da elkarteak ez duela ardurarik izanen gertatu daitezkeen edozein ustekabe edo eragozpenekin.

### Lehenbiziko eskurtsioa prest

Orain bi urte bezala (2021ean ez zen posible izan) Gipuzkoa aldera eginen dute bazkideek urteko lehenbiziko txangoa, bertso bazkariak gozatzeko. Hitzordua Urnietako Oianume sagardotegian izanen dute otsailaren 17an, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasoren bertsoekin disfrutatzen xedea erekin. Bi autobus betez, ehun bazkide baino gehiago izanen dira Urnietara hurbilduko direnak. Hauei bertsoekin eginen diete aperitibo orduko ongietorria. Beti ere osasun arauak errespetatuz, kafearen ondotik etorriko da benetako kantua eta musika jaialdi potentea.

## Iruritan Jubiloteka egitasmoa lantzeko bilera eginen dute otsailaren 14an

### P. IRASTORTZA

Jubiloteka zerbitzua antolatu nahi dute Iruritako herriak eta Arkupeak elkarteak. Bertan, adinekoen denbora librearen kudeaketa, gorputza eta garuna lantzea, elkarren harremanak hobetzea eta ikastaro eta solasaldiez gozatzea izanen da lehenengo xedea. Jakinmina duenari uzta mardula eskuratzeko lanabes bikaina eskaintzeko asmoarekin zabalduko litzateke, batez ere urteetan aitzinera doazen-

tzat. Erakundeek eta antolatzailleek lehenbiziko pausoak emanak dituzte, baina ezinbertzekoa da denen parte-hartzea, baita jubilatuen ere.

### Bilera

Pauso garrantzitsu bezala, datorren astelehenean, otsailak 14, 10:00etan, Iruritako erreboten plazako Erdiz gelan eginen den bilera baterako deia egin du antolakuntzak. Anima zaitetz, lagun! Ez dezagun altxor hau galdu!

## Lehiakide zintzoenen arteko saria Leitzara

Iaz hileroko lehiaketaren galderari gutxienez 9 hilabetetan erantzuna eman zieten leialtasuna saritu nahi izan du Elkarteak. Zintzo demonio saiatu diren hamabi bazkideen artean egin da zozketa. eta Leitzan bizi den Julian Iparragirre Lukanbio izan da ongi merezitako Perón etxeko janari sorta etxeratu duena.



UTZITAKO ARGAZKIA



P. IRASTORTZA

## Urteko lehen mendi itzulia Malerrekan

48 mendizalek parte hartu zuten ilbeltzaren 18an Donezteben abiatu eta akitu zen lehen mendi txangoan. Donamaria inguruak ere ezagutu zituzten. Artze inguruko Trosketa ur-jauzian ikuskizun paregabea izan zuten. Datorren hitzordua Beran izanen dute, otsailaren 15ean.

## Ur hornidurari lotuta hainbat lan eginen dituzte

Gobernuak ur edangarria tratatzeko estazioan estalpea egiteko eta estaziora doan hoditeria berritzeko inbertsioa eginen du

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 42 milioi euro inbertituko ditu datozen urteetan ur hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko azpiegiturak hobetzeko eta berritzeko. 2025era bitartean, 44 jarduera aurreikusitakoak, eta horietako batzuk Leitza.

Alde batetik, ur edangarria tratatzeko estazioan estalpea eginen dute. Mikel Zabaleta alkatearen hitzetan, «estazio hori automatizatua dago eta aparatu elektroniko ugari ditu. Zati bat estali gabea izanik, matxura asko sortzen ziren, batez ere, eguzkiaren eta izotzaren eraginez». Estalpea eginda «ura tratatzeko estazio guztia babestuagoa» egonen dela nabarmendu du alkateak, eta hala, «arazo gutxiago emanen ditu».

Bestetik, «Gazpiloko iturritik ur edangarria tratatzeko estazioraino doan hodia eta iturriko harrera berrituko dira. Aspaldikoa den hodi horrek ur isuri asko ditu eta ur asko galtzen da». Aurreratu duenez, «hodia igarotzen den tokia ez da erraza eta iturritik estaziorako distantzia ere handia denez, lan hauek nahiko zailak eta garestiak izanen dira».

Bi lanen aurrekontuen kopuru zehatzik oraindik ez dutela argitu du alkateak: «gutxi gorabehera milioi erdi euro kostako dira bi lanak; bigarrena garestiena da». Udalak 2018an aurkeztu zion Nafarroako Gobernuari estazioan estalpea egiteko proiektua. «Orain prezioak eguneratu behar dira, eta ez dakigu horretatik Nafarroako Gobernuak zenbat onartuko digun».

### Atekabeltzeko hurrengo kontzertuak

Ilbeltzaren 15ean Joseba Irazoki eta lagunak bisita izan zuten Atekabeltz Herrigunean, eta hurrengo hitzorduak presatzen ere hasiak dira. Otsailean atsedean hartuta, martxoaren 12an, Liherrak *Eta hutsa zen helmuga* bere azken diskoa aurkeztuko du Atekabeltzen eta maiatzaren 7rako beste proposamen bat egin dute. Besteak beste, Ibil Bedi eta Pelax taldeak gonbidatuko dituzte. Eguna hurbildu ahal xehetasun gehiago emanen dituzte Atekabeltz Herriguneko kideek.

### Hitzaldia, antzerkia eta zinea egun hauetan

Aurreko aldizkarian iragarri bezala, hainbat hitzordu izanen dira ondoko egunetan Herri Aretoan. Ostegunean, otsailaren 10ean, 3 eta 14 urte bitarteko haurren gurasoentzako *Gurasoak eta seme-alabak pantailen aurrean* hitzaldia antolatuko dute, 18:00etan. Igandean, hilaren 13an, *Eresia* antzezlanak ikusteko aukera izanen da 19:00etan, eta otsailaren 19an eta 20an zinea izanen da. Bi egunetan, 16:30ean *Spiderman no way home* pantailaratuko dute, eta 19:00etan *Ilargi guztiak* helduentzako.

### Aizkoran eta harri jasotzen Amazabal pilotalekuan

Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako saioa jokatu zuten ilbeltzaren 29an: Eneko Saralegi-Txomin Amundarain eta Mikel Larrañaga-Izeta VI.a aizkoran –Jon Rekondok ezin izan zuen– eta Izeta IV.a eta Ane Zinkunegi harriarekin



EGUR SPORT

### Liburutegiarekin Whatsapp bidez harremanetan

Maileguak luzatzeko, erreserbak egiteko, tituluak erosteko proposamenak egiteko, zerbitzua hobetzeko iradokizunak egiteko... eta «liburutegiarekin zerikusia duen edozertarako» Whatsapp bidezko telefono berria jarri dute eskura liburutegian: 621 24 80 24.

### Euriteen ondorioz 179.775 euroko kalteak

Udalak jakinarazi duenez, abenduko eta urtarileko euriteen ondorioz, bide eta azpiegitura publikoetan guztira 179.775 euroko kalteak izan ziren. Horiek moldatzeko eta dirulaguntzak lortzeko kudeaketak egiten ari dela gaineratu du.



GURASO ELKARTEA

### Inauterien seinalea

Ohiko inauteririk eta mugimendurik izan ez bada ere, inauterien seinalea egin zuten herritarrek. Haurrek eta gurasoek, esaterako, mozorrotu eta kalejira egin zuten herrian barrena trikitilarien eta pandero-jotzaileen laguntzarekin.





Ilbeltzaren 30eko lehen greba egunean, lantegi aurrean egindako elkarretaratzea.

## «Urtebete baino gehiago daramagu zerbaiten esperoan»

ARATZ BARANDIARAN ENPRESA BATZORDEKO IDAZKARIA

### TTIPI-TTAPA

Lan hitzarmen «duina» sinatzeko «negoziazioak blokeatuta» zeudela eta, Torraspapel lantegian bost eguneko greba abiatu zuten ilbeltzaren 30ean; otsailaren 2an, 5ean, 8an eta 12an segida emateko. Lerro hauek idazterakoan aurreneko greba eguna ez zuten egina eta Aratz Barandiaran lantegiko enpresa batzordeko idazkariaren hitzetan, erantzuna «oso ona» izan zen. Geroztik zer gertatu den aurreratu ezin bada ere, ordura arteko bidez, langileen aldarrikapenez eta enpresaren jarreraz mintzatu zen joan den astean TTIPI-TTAPAREkin.

### Negoziazioak blokeatuta daude la salatu duzue. Zein izan da bidea?

Urtebete daramagu lan hitzarmenik gabe, 2020ko urtarriletik. Covid-19arekin, lehengo urtean lehen gure lan hitzarmena beste urte baterako luzatzea eskatu genion enpresari, errelebo kontratua bukatzen zitzaizen 20-25 langileei kontratua berritzea bermatuz gero. Ez genion lan egiteari utzi, baina lan aldetik justu ari ginen momentua zen, eta orduan egin genion proposame-

na. Enpresak, ordea, ez zuen nahi izan. Gero, egoera hobetzen hasi zen, eta ekainean, lan askorekin ari ginenean, enpresak luzatzea proposatu zuen, baina langileek ezetz esan genuen, egoera bestelakoa zela eta hobekuntza gehiago behar zirela. Abenduan hasi ginen lan hitzarmena negoziatzeko. Gure plataforma aurkeztu genuen, eta hiru bilera eduki genituen enpresarekin. Baina aurrera egiteko enpresak ezarritako baldintzak ez ziren inondik inora onargarriak. Aurrera egiten ez genuela eta enpresaren aldetik deus onik hartu gabe urte bat baino gehiago daramagula ikusita, gelditzea erabaki genuen.

### Zein dira onargarriak ez diren baldintza horiek?

Alde ekonomikoari dagokionez, alde handia dago gure eskatzen dugunaren eta enpresak eskaintzen duenaren artean. Hortik aparte, ordu estren kontua dago. Bost errelebotan ari garenok ordu estra dezente sartzen ditugu, eta aurreneko 40 orduak ordaindu egiten dituzte eta hortik aurrera, egun bat jai eman eta % 75 ordaindu. Langileok aurreneko egunetik egun

bat jai ematea eta % 75 ordainetzea eskatzen dugu, baina hori horrela izatekotan, enpresak ordu estrak sartzera behartuak egon beharko genukeela esaten zigun. Hau da, norbait falta izanez gero, gure jai egunetan behartuak egonen ginatela lanera joateko. Eta jai egunetan ere enpresaren deien zain egon behar izatea ez da inondik inora onargarria. Bilera horietako batean, derrigorrezkoa izan gabe, froga egiteko aukera proposatu zuen, baina gustatzen ez bazitzaion atzera botatzeko aukera izatea eskatu zuen. Neurri nahiduenen indarrean jarri eta nahi duenean alde batera uztea ez da onargarria.

### Zer diozu enpresaren jarreraz?

Borondatea duenaren itxura egiten du, baina dena baldintzatua dago. Enpresaren jarrera beti negoziazioak luzatzea izaten da, uda aldera horrela ailegatzea eta jendeak oporrak dituen artean presa sartzeko. Baina horrelakorik ez onartzea erabaki dugu, eta enpresari denbora markatzea. Urtea eta gehiago daramagu enpresaren aldetik zerbaiten esperoan.

### Zer dio zuen aldarrikapen plataformak?

30 puntutik gora dira, baina batzuk aipatzearen, soldata igoera KPI-tik gora izatea es-

katzen dugu. Lehengo urteko soldata igoera ere zintzilik dugu. KPI gehi urteko mila euroko soldata igoera eskatzen zen, baina eskaera hori egin genuenean ez genekien KPI 6,5 puntukoa izanen zenik. Bestalde, lanorduak jaitea eskatzen dugu, urtero zortzi ordu jaitea. 12 urte inguru daramatzagu jaitsi gabe. Baimenei lotutako eskaerak ere hor daude. Besteak beste, ordaindu gabeko baimena hartzeko aukera izatea eskatzen dugu, urtero gehienez hilabete bateko baimen ez-ordaindua izateko eskubidea izatea, hain zuzen. Edo lehen bezala, dentistara joateko baimen ordaindua edukitzea... ETT bidezko kontratazioa mugatzea ere eskatzen dugu. Orain 60 bat langile izanen dira ETT bidez lanean ari direnak. Kategoria baxuenean lanean ari direnen eta besteen artean alde handia dago, eta hori mugatzea ere nahi dugu.

### Greba deialdirako batzarrak langileen babes handia izan zuen. 380 langile inguruk zuten botoa emateko aukera eta grebaren aldeko 262 boto izan ziren, kontra 18, sei zuri eta baliogabe bat...

Babes handia edukiko izatea espero genuen, azken bizpahiru urteotan enpresaren jarreraren aurrean langileen haserre gora doalako, eta Covid-19aren harira hartu dituen erabakiekin oraindik gehiago. Alde horretatik, espero genuen babes handia jasotzea, baina uste baino handiagoa izan da. Batzar horretan beste batzuetan baino 50 bat lagun gehiagok bozkatu zuten, eta alde horretatik oso-oso pozik gaude. Ez hori bakarrik. Lehen greba egunean dena geldi egon zen [lerro hauek idazterakoan beste greba egunak egin gabeak ziren]. Inork ez zuen lanik egin eta gainera, errelebo aldaketa guztietan, lantegi sarreraren jende dezente hurbildu zen. Jendearen erantzunarekin oso pozik gaude. Hortik aurrera enpresak mugimendurik egiten duen edo ez ikusi beharko da. Denborak esanzen du.

## «ENPRESAK BETI NEGOZIAZIOAK LUZATU NAHI IZATEN DITU»

## Sasaingo errekarri buelta emanen diote igandean

Mendi taldeak antolatuta, goiko zentraletik abiatuko da igande honetako irteera

### TTIPI-TTAPA

Arainburu Mendi Taldeak prest du otsaileko hitzordua. Igande honetan, otsailaren 13an, izanen da eta goiko zentraletik Sasaingo errekarri buelta zirkularra emanen diote.

08:45ean herriko plazan elkartu eta kotxez goiko zentralera joanen dira eta 6,71 kilometro eta 273 metroko desnibela egingen duen itzulia emanen dute. Ibilbidea «erraza» izanen dela aurreratu dute eta 13:00etan itzuliko dira.

Izen-ematea estankoa egin beharko da ostegun hau, otsailaren 10a, baino lehen. Kotxea eramateko boluntarioak behar omen direla eta, izena ematean, kotxea eramateko prest dagoenari orrian *Bai* adierazteko eskatu diote. Kotxeak antolatzeko mendi taldekoak beraiekin harremanetan jarriko dira.



Abenduko irteerako irudi bat. I. APEZETXEA.

Ohar pare bat ere eman dituzte: Segurtasun neurriak mantendu ezin denean erabiltzeko musukoa eraman behar dela eta ez direla gerta daitezkeen ezbeharren erantzule izanen.



FELIX LOIARTE

## Energia berriagarriak hizpide

Goizukoop kooperatibak antolatuta, *Berriztagarriak sustatzen: Autokontsumotik energia komunitateetara* hitzaldia eman zuen Goienerreko Maria Arretzek urtarrilaren 21ean. 40 lagun inguru bildu ziren udaletxeko ganbaran gaiari buruz gehiago jakiteko.

## 'Tratu onen kultura gurasogintzan' hitzaldia ostegunean

### TTIPI-TTAPA

«Gurasoen eta seme-alaben arteko tratu onak eta haurren artekoak gurasoen kezka nagusienetarikoa» direla ikusita, Bhutan proiektuaren barruan, «kezka horri espazio bat» eman nahi izan dio Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, eta hala, *Tratu onen kultura gurasogintzan* izenburupean hitzaldia antolatu du. Arremanitz kooperatibako kideek emanen dute.

Iazko azaroan egitekoa zen hitzaldia, baina pandemia tarteko atzeratu behar izan

zuten. Azkenean, ostegun honetan, otsailaren 10ean, egingen dute, udaletxeko ganbaran, 17:00etatik 19:00etara. Saioa 3 eta 14 urte bitarteko haurren gurasoentzako da eta parte-hartzea errazteko asmoz, zaintza zerbitzua antolatu dutela jakinarazi dute.

Parte hartzeko asteartean, otsailaren 8an, bukatzeko zen hitzaldian izena emateko epea; Gizarte Zerbitzuen bulegora deituz (948 51 08 40) edo guraso elkarteko helbidera idatziz ([g.elkartea@hotmail.com](mailto:g.elkartea@hotmail.com)).



Urtarrilaren 30ean Artikutzan egindako bisita gidatua. ARANTZA AGIRRE

## Hilabetean behin Artikutzan bisita gidatuak

### TTIPI-TTAPA

Donostiako Udalak hilabetean behin bisita gidatuak antolatzeko Artikutzan. Eta urtarrileko azkena urtarrilaren 30ean egin zuten Enobietako urtegiaren inguruan. Sei bat kilometroko ibilbidea osatuz, Artikutza auzotik abiatuta presara joan ziren eta urtegiaren hustuketaz eta ingurunea berreskuratzeko lanez hainbat azalpen eman zituzten.

Otsaileko bisita gidatuaren datak ere jakinarazi ditu Donostiako Udalak. Otsailaren 6an Ugaldeko presa zaharretara joatekoak ziren; otsailaren

20an Altuetako gainera joanen dira 12 kilometroko buelta egin bidenabar eta otsailaren 27an Arriurdinetatik Elamara joateko hitzordua antolatu dute. Kasu honetan sei kilometroko itzulia izanen da eta Arriurdinetako harrobian dagoen aparkalekutik abiatuko dira.

### Izen-ematea

Parte hartzeko aurretik izena eman behar da [artikutzanatura@donostia.eusera](mailto:artikutzanatura@donostia.eusera) idatzita edo telefonoz 679 61 30 16ra deituta, astelehenetik ostegunera, 11:00etatik 16:00etara.



## Mozorroak jantzi eta inauteriei keinu egin diete herritarrek

Ohiko ekitaldi batzuk ezin izan dira egin, baina mozorroak jantzi eta kalera atera dira

### TTIPI-TTAPA

Ezohiko inauteriak izan dira, ez da etxez etxeko eskerik edo otordurik izan, baina hala ere, mozorroak jantzi eta musika eta umorea lagun, herritarrek ez dute inauteriak ospatzeko aukera alferrik galdu.

Nazabal eskolako lagunak izan ziren inauterietako ospakizunei hasiera eman zietenak. Urtarrilaren 28an, ostiralean, zirkua osatu zuten eskolakoek. Mimoz prestatutako mozorroak jantzita atera ziren pailazoak, gimnastak, magoak, mimoak eta musika banda.

Lehenengo, herrian barrena kalejira egin zuten, eta gero, eguerdi partean, plazan jarririk karpán emanaldi ederra egin zuten bildutakoen aurrean.

Larunbatean, urtarrilaren 29an, festa giroak jarraipena izan zuen. Eguraldi ederra lagun, arratsaldean, mozorroak jantzi eta kalejira egin zuten haurrek, gaztetxoek eta helduek. Ondoren, umek dantza emanaldia egin zuten eta bingoan ibiltzeko aukera ere izan zuten. Inauteriak borobiltzeko, erromeria izan zen plazan.



Irudi koloretsuak utzi dituzte inauteriek. ENERITZ IRAOLA

## 80 pilotari baino gehiagok parte hartuko dute Mendialdeko binakako txapelketan

### TTIPI-TTAPA

Goizuetako Umore Ona pilota eskolako 15 pilotarik, Leitzako Aurrera pilota eskolako 38 pilotarik eta Larraun-Araxeseko 31 pilotarik eman dute izena aurtun hirugarrenez jokatu den Mendialdeko Binakako Pilota Txapelketan. Zerrenda horri seniorren mailakoak gehitu behar zaizkio, hortaz, 80 pilotaritik gora izanen dira.

Txapelketa bi zatitan antolatu dute. Gaztetxoek, hau da, seinen, kimuen eta haurren kategoriatakoak joan den asteburuan hastekoak ziren. Aste-

buru honetan eta hurrengoetan jardunaldi gehiago jokatu dituzte eta kategoriaren arabera, finalerdiak otsail bukaeran edo martxoan, eta finalak martxoan jokatu dituzte. Nesketan, lau bikote ariko dira; eta mutiletan, seinetan, A kategorian, lau bikote eta B kategorian hiru bikote; kimuetan, 1. mailan hiru bikote; 2. mailan, A kategorian, hiru bikote eta B mailan lau eta 3. mailan bost bikote; haurretan, 1. mailan, hiru bikote, 2. mailan bost eta 3. mailan lau. Martxoan, kadeteak, gazteak eta seniorrak hasiko dira.



Joan den ekainean Goizuetan egindako azokan hartutako irudia. FELIX LOIARTE

## Mendialdeko Azoka Ibiltarien datak jakinarazi dituzte

### TTIPI-TTAPA

Aurreko urteetan izandako arrakasta errepikatzeko gogotsu, aurtun ere Mendialdeko Azoka Ibiltariak egingen dituzte herriz herri. Cederna Garalur Elkartek jakinarazi duenez, guztira bederatzi azoka egingen dituzte, eta horien artean hiru eskualdean: Goizuetan, Leitzan eta Areson.

### Bederatzi azoka

Apirilaren 24an Araitzen hasiko dute denboraldia eta horren ondoren, Lekunberrik hartuko du lekukoa, maiatzaren 8an. Maiatzeko bigarren

hitzordua hilaren 15ean Larraunen egingen dute.

Ekaineko bi azokak eskualdean egingen dituzte: ekainaren 5ean **Goizuetan** eta hilaren 19an **Leitzan**. Uztailaren 3an Imotzen egingen dute hurrengo azoka eta uztailaren 24an Basaburuan. Abuztuaren sartuta **Aresok** hartuko du lekukoa, abuztuaren 14an, eta irailaren 4an Atetzen borobilduko dute aurtengo azoka ibiltarien denboraldia.

Aurrerago emanen dute azoka bakoitzaren leku zehatzen eta egun bakoitzeko egitarauaren berri.



Hainbat herritar eta erakundek haien elkartasuna adierazi diete sei auzipetuei eta epaiketa salatu dute. UTZITAKOAK

## Baztandarrak Aroztegiko auzipetuekin bat

Ilbeltzaren 27an sei baztandar Nafarroako Auzitegian deklaratzera deituak izan ziren

### TTIPI-TTAPA | LEKAROZ

Aroztegiko proiektua ustez gelditzeagatik eta «derrigortze delitua» egotzita, sei baztandar Iruñean deklaratzera deituak izan ziren ilbeltzaren 27an. Epaiketa honen kontra, hainbat herritarrek elkarretaratzea egin zuten auzitegian, «proiektu hau herri oso batek gelditu

duela» argudiatuz, «beraz epaiketa hau herri oso baten kontrako erasotzat hartzen dugu. Banakako arduraz mozorrotu nahi dutena, kolektiboki erantzuteko prest gaude». «Erantzukizun politikoa» eskatu zioten Nafarroako Gobernuari, eta proiektua gelditu arte «auzolanen eta bo-

rrokan segituko dutela» adierazi zuten. Hainbat talde eta erakundek babestu dute mezu hau, haien artean Baztango Udalak, hainbat herrik, talde feminista eta abertzaleek eta kirol eta kultura elkarteek.

### Auzipetuen deklarazioak

Deklarazioen egunean Garbiñe Elizegik adierazi zuenez, «gaur zigortu nahi dena ez da guk seiak egin duguna edo egin ez duguna, gaur epaitegi honetan herri oso batek eraso bortitz baten aitzinean bere burua defenditzea eta bere erabakien jabe izatea zigortu nahi da». Herriak «historikoki» egin izan duena egin dutela adierazi zuen; «batzarretan erabakiak hartu eta auzolanaren bitartez

erabakiak burutu». Mezu argia helarazi nahi izan zuen: «mendez mende, gure lurak bereganatzera eta gure hizkuntza eta kultura desagerraraztera etorri diren kolonizatzaile, inkisidore eta diktadoreek lortu ez dutena, ez dute lortuko gaur egun Nafarroako Gobernuan dauden sasidemokratek edo mafiosoen pare jokatzeko duten dirudunek. Herri honek duintasunarekin segituko du zutik eta bizirik, gu seiak erori edo ez erori, edo guri ditugun lau sos kendu edo ez».

Itziar Torresek PSIS edo UGEP (Udalez Gaindiko Eragina duen Plana) figura administratiboaren «erabilera gaiztoa» salatu zuen, «gure lurren gainean ditugun eskumenak kentzeko helburu hutsarekin» erabili dela argudiatuz. «Proiektua ez da interes orokorrekoa ez eta udalez gaindikoa ere». Auziak «konponbide politikoa» duela gehitu zuen; «Nafarroako Gobernuak erantzukizuneko jokatzera eta UGEPa bertan beheiti uztea. Hor akituko dira arazoak».

Auzipetuek egingako guztia «publikoki» egin dutela adierazi dute, «egun argiz egin dugu eta denek ikusi dute. Gainera, ez da baztandarren afera bat izan, eragile politiko, sozial, sindikal eta kultural pila egon dira. Euskal Herritik jende pila bat etorri da, eta horrek erakusten du horrelako proiektuek ekartzen dituzten kezak eta kontrakotasuna».



**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

📍 Kanttonberri, 1 | BERA  
 ☎️ T. 948 631 218  
 ✉️ joxemi@kateabike.com  
 📞 948 631 218

**TXAPELKETAN ARI**

SCOTT PINARELLO  
 BERGAMONT BH  
 MESSI BIKOTE coluer LOOK



- Inmobiliaria  
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
 anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com





Bilboko Arriaga antzokian hartu zuten saria amaiurtarrek. UTZITAKOIA

## Amaiurko Gaztelu elkarteari Sabino Arana saria eman diote Bilbon

### TTIPI-TTAPA

«Euskal memoriaren alde egin-dako lanarengatik» saritu zuten Amaiurko Gaztelu elkarteak Bilbon urtarrilaren 30ean. Funtsean, gazteluaren eta herriaren erran-nahia berreraiki eta balioa emateagatik hartu zuten aitortza. Osotara sei erakunde eta pertsonak jaso zuten Sabino Arana saria; Amaiur Gaztelu elkarteak, Luis Ugalde jesuita venezuelarrak, Luis Maria Bengoa kazetariak, Irungo Bidasoa kirol elkarteak, Donostiako Basque Culinary Center ikastetxeak eta Aita Mari migratzaileen erreskate-ontziak.

Ixabel Aleman herriko alkateak monolitoaren laburpen historikoa egin zuen saria hartzean, eta gogora ekarri zuen bere garaian «herritarren diru-ekarpenekin eta garai hartako euskal erakundeen

laguntzarekin» eraiki zela. Adierazi zuenez, «Amaiurrek ordezkatzeko duen memoria historikoa ezabatzeko intentzioarekin» bota zuten monolitoa, eta 1982an monumentua eta bere erran-nahia berreskuratzeko, Gaztelu Elkarteak sortu zuten. Alkateak azpimarratu zuenez, mende honetan «gure herriaren memoria zientzian oinarritzen dugu, eta horregatik ekin zaio gazteluaren eta Amaiur inguruaren arkeologia eta musealizazio-lanari. Gure arbasoen historia ezagutu behar dugu herri bezala aitzinera egiteko».

### 500 urte

Amaiurko Gudaren 500. urteurrena beteko da aurten, eta elkarteak hainbat ekimen eginen ditu udan urtebetetze berezi hau ospatzeko; ekitaldiak, ikuskizunak, bazkaria...



Irakasleek bilketa kanpaina aurkeztu zuten urtarrilaren 19an. UTZITAKOIA

## Cabo Verdera bidaltzeko materialaren bilketa hasi du Lanbide Eskolak

### TTIPI-TTAPA

Ikasturte hasieran proiektu berri bat abiatu zuten Elizondoko Lanbide Eskolako hainbat ikaslek, Cabo Verde proiektua deitua. Ayuda Contenedores gobernuz kanpoko erakundearen bitartez harremanetan jarri dira Afrikako Cabo Verde artxipelagoko ikastetxe batekin, CEFV Variante Lanbide Eskola. Proiektuaren helburua edukiontzibat betetzea da, bertako ikasle eta irakasleentzako baliagarriak izan daitezkeen material eta tresnekin, negutegi bat eta hazitegi bat, adibidez.

Hainbat ziklotako ikasleek parte hartzen dute proiektuan, 20 ikaslek eta 6 irakaslek guztira. Aitzinera eramateko, hainbat ekimen egin dituzte, haien artean Elkarlan SL enpresa simulatua sortu dute. Eskualdeko udal, ikastetxe eta

entitateek metalezko eraikuntzen eskariak egin diete eta lortutako diruarekin finantzatu dute proiektua.

Orain, Baztan-Bidasoko herritarren kolaborazioa eskatu dute, material bilketaren kanpaina parte hartzeko. Otsailaren 1etik martxoaren 31ra arte erremintak, makinak, lanerako tresnak eta baliagarria izan daitezkeen edozer gauza bilduko dituzte edukiontzia betetzeko. Lagundu nahi dutenek eskolara deitu dezakete harremanetan jaritzeko.

### Telebistan ere

Urtarrilaren 21ean ETB1eko 'Biba Zuek!' saioan Lanbide Eskolako hainbat ikasle eta irakasle elkarriketatu zituzten, eta proiektu solidarioaren nondik norakoak azaldu zituzten.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Drogeria · Garbiketa produktuak  
Feretaria · Sukaldeko tresnak  
Mozorroak · Papertegia  
Kiroleko eta mendiko jantziak  
Moda · Oinetakoak  
Laneko arropa · Bitxiak  
Lurrin-denda  
Kosmetika, Elektronika  
Telefonoak · Poltsak eta mailetak  
Etab.

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1  
31780 BERA  
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

# «Ekitaldi kulturelek aunitz aberasten dute Irurita»

PELLO IRIARTE ZELAIETA IRURITAKO ALKATEA

Iruritako alkatetza hartu du azken agintaldian Pello Iriarte Zelaietak. Geroztik herrian egindako lanez eta uholdeek utzitako kalteez aritu da TTIPI-TTAPAREKIN



Hainbat lan egin dituzte herrian Pello Iriarte alkatetzan hasi zenetik, haien artean, gisu-labe bat garbitzen ari dira. UTZITAKOIA

R. OSKARIZ | IRURITA

2021ean hartu zuen lehenbiziko aldiz Pello Iriarte Zelaietak Iruritako alkatetza. «Hasmentan ez nuen aurkezteko asmorik, baina herrian arazoak izan ziren, inork ez zuen aurkeztu nahi eta hilabete batzuk eman genituen horrela. Hortaz, martxoan neure burua aurkeztea erabaki nuen». «Lan handia» dauka eta «ordu aunitz» sartu behar ditu, «baina lantalde polita lortu dugu». **Nortzuk dituzu kargudunak?**

Hainbat herritarrek laguntzen didate lanekin. Sara Dorregaray gazteen elkartearen dago eta herriko bestak antolatzen ibiltzen da, gainera arkitektoa da eta aunitz laguntzen du proiektu batzuetan. Xabier Ripa he-

rriko uren batzordean sartuta dago eta kristoren lana egiten du bertze batzordeekin batera, horrela funtzionatzen baitugu herrian, batzordeekin, eta hauek ere koordinatu behar dira. Miguel Bidegainek eramanen ditu auzolanak, hormigoitzeak... eta horrelako lanak koordinatzen ditu. Baserrietan ere baditugu hainbat laguntzaile edozer gauza egiteko prest.

**Zenbatero biltzen zarete?**

**«ALKATETZA LAN HANDIA DA BAINA LANTALDE POLITA LORTU DUGU»**

Noizbehinka, ez dugu bilerak egiteko egun zehatzik. Gizarte Bilgunean elkartzen gara, eta bertako ostatua nik eramanen dudanez, toki ona dugu elkartzeko eta solastatzeko. Zerbait gertatzen denean badakigu bertan bildu behar dugula.

**Zeintzuk dira alkatearen ardurak?**

Iruritako herritarren iritziak eta batez ere eskaerak biltzea eta Baztango Udalera eramatea. Herriaren eta udalaren

**«BATZORDEEKIN FUNTZIONATZEN DU HERRIKO ANTOLAKUNTZAK»**

arteko bitartekaritza lanak egitea, azken finean. Ia astero joaten naiz udaletxera eta alkateordearekin biltzen naiz, zer gauzak behar diren edo egin behar diren zehazteko eta batez ere herrian zein proiektu garatzen ahal ditugun ikusteko. Horrez gain, gure kabuz zer egiten ahal dugun begiratzen dugu. Aurten, adibidez, errota aldeko bidea garbitu dugu, auzolanak egin ditugu herria txukuntzeko, hormigoia bota dugu bide batzuetan... eta gisu-labezahar bat garbitzen ari gara.

**Zein da agintaldian izan duzun zailtasunik handiena?**

Abenduan izandako uholdeek utzitako kalteak. Hainbat lan koordinatu behar izan ditugu, erreka lur puska haundi bat eraman du eta leku batzuetan harri-lubetak egin behar izan ditugu. Urgentziatzeko lanak momentuan egin ziren baina gainerakoak denbora gehiagorekin prestatzen ari gara. Hasteko, eskaerak egin behar izan dira ez delako udalaren ardura bakarrik, Konfederazio Hidrografikoa eta Nafarroako Gobernua ere hor daude eta diru kontua da. Orain, bideen konponketekin gaude, mendietan hainbat pista kaltetuak izan baitira. Aurrekontuak eta materialak prestatzen ari gara, gauza batzuk auzolanen egiten ditugu baina bertze batzuetarako makineria behar da eta hori udaletxearekin egiten dugu elkarlanean.

**Zer behar ikusten dituzu herrian?**

Irisgarritasunaren gaia aunitz landu behar dugu oraindik. Pixkanaka ari gara espaloiak eta bideak hobetzen, barandak paratzen... Plazako iturrian, Gizarte Bilguneko maldan eta bertze lekuetan aritu gara lanean, baina gauza guziek badute bere kostua eta dirua behar denez poliki-poliki ari gara dena konpontzen. Honez gain, herriko komunak ere berriro genituen iaz. Udaleko arkitektoak egin zuen proiektua eta nahiko ongi gelditu dira.



### Baztanen, Irurita kulturalki nabarmentzen den herria da. Kultura sortzea eta sustatzea garrantzitsua dela uste duzu?

Bai, noski. Ekitaldi aunitz egiten dira, guk dauzkagun altxorak dira eta bultzatu behar dira. Alde batetik ondare kulturala dugu eta bertzetik ondare paisajistikoa, ederra eta arras aberatsa. Hala ere, kultur ekitaldi gehienak gazteek bultzatuak dira eta gazteei zuzenduak, hortaz, jubiloteka bat egin nahi dugu aurten, baita oroimen historikoko lanak; ez Gerra Zibilekoak baizik eta orokorrean lehengo ohiturak, ogibideak... informazio kulturala, historikoa eta etnografikoa bildu nahi dugu. Adineko jendearekin harremana izateko modu bat da, haiek aktibo egoteko, eta guk informazio baliotsu hori bilduko dugu. Horrez gain, hainbat ekitaldi koordinatzen ditugu eta herriko elkarten arteko harremanak sendotzen saiatzen gara; laxoa, paxaka, dantzariak, antzerkiak, Elizondoko Koro Ttikia... Aunitz aberasten dute herria eta gero eta ekitaldi interesgarriagoak egitea ahalbidetzen digute. Baina hori ez da guztiz nire lana, elkarreana baizik, nik hau susta dezaket baina herritarren parte-hartzea beharrezkoa da. Proiektuek, herriarren babesik gabe, ez dute deus balio.

**Turismoa ere geroz eta ugariagoa da bailaran. Iruritan badu eragirik?**



Hainbat pista konpontzeko eta hormigoitzeko auzolanak egin dituzte Iruritan azken urtean. UTZITAKOIA

Garrantzi handiko ondarea du herriak eta hor bi alderdi desberdinu behar ditugu; guk guretako sortutako kultura eta turismora begira noiz-behinka egiten duguna. Azken finean, turismoa guretako diru-sarrera da. Baina noski, lehenbizko herrikoak dira eta gero kanpokoak.

### **Nola ikusten duzu herriaren etorkizuna?**

Baztan guzian bezala, gure arazoak ditugu etxebizitzekin

Iruritan. Hemen ez da Elizondon bezalako bultzada urbanistikorik izan, zorionez, baina egia da hemengo gazteek beren etxea edo pisua lortzeko zailtasunak dituztela. Etxe pila ditugu, hainbat hutsik, baina ez badira erraztasunak ematen etxebizitza kolektiboak egiteko edo nolabait ere berritzeko, gazteendako beti erosoago izanen da pisu bat edo apartamentu bat alokatzea, eta hemen horrelakorik ez

dugu. Baina guk gure aldetik gauza guti egiten ahal dugu, alde batetik etxebizitza merkatarua horrela delakoz eta bertzetik, guk ezin ditugulako dirulaguntzak eman, horretarako daude Baztango Udala eta Nafarroako Gobernua. **Nola baloratuko zenuke zure agintaldia?**

Lehenbizikoa izanik, ikasteko balio izan dit, sartzea eta zer dagoen ikustea izan da. Batzuk badute ohitura gauzak antolatzen, baina nire kasuan zailago izan da. Ikasteko urtea izan da.

### **Hurrengo agintaldian segitzeko prest egonen zinateke?**

Printzipioz, ez. Ikusiko da, baina nahiago nuke gazteek hartuko balute alkatetza.

## «ONDARE KULTURAL ETA PAISAJISTIKO EDERRA DUGU»

## «PROIEKTUEK HERRIAREN BABESIK GABE EZ DUTE DEUS BALIO»

**OTEIZA**  
ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43  
www.oteizaarquitectos.com

DESIGNER  
CERTIFIED  
PASSIVE HOUSE  
DESIGNER

Instagram: oteizaarquitectos

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatua

Dibortzioak, herentziak,  
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN S.L.**  
VALLE DE CAJEREA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

# Batzar Nagusiak ordenantza berriak onartu ditu

Lur aprobetxamenduaren ordenantzaan hainbat berritasun aipagarri onartu dituzte

## TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 22an egindako ohiko bilkuran Baztango Batzar Nagusiak lur aprobetxamenduei buruzko ordenantza berriak onartu zituen, 26 batzarkideren aldeko bozkarrekin eta Navarra Sumaren kontrako hirurekin. 2016an hasitako berritze prozesua akitu dute honekin eta uztailan sartuko dira indarrean ordenantza berriak.

Duela 6 urte hasi zen berritze prozesua, ahuntz hazkuntzan profesionalki aritu nahi zuten herritar batek larraska egiteko aukerari buruz galdeztzean, indarrean diren ordenantzak aurreikusten ez zuen. Orduan, batzordekideek lur aprobetxamenduei buruzko ordenantza berriak onartu zituzten.

Hasteko, luberrien bajak eta altak lehenago eskatzen duenari eman beharrean, hilabete epea irekiko da interesdunek beren eskaerak udalean erregistratzeko. Herritar guztiek luberria libre denaren berri izanen dute iragarki oholen eta udalaren webgunearen bidez. Eskatzaile bat baina gehiago aurkezten bada, hau izanen da lehentasun ordena: lehenik lehentasunezko ustiategiak direnak, ondotik jardura nagusiko nekazariak direnak eta azkenik gainerakoak. Kategoria bereko eskatzaile bat baino gehiago izatekotan, puntuazio taula baten arabera barematuko da (aitzinetik luberririk ote duen, zein kopuru, ekologikoa ote den...).

Bigarren, titularitate aldatetarako jardura nagusiko nekazari ez direnen kasuetan ere onartuko dira, gehienezko 10 hektarearekin.

Honez gain, auzotar bakoitzak gehienez 30 hektarea luberriz izaten ahalko ditu eta ahuntz edo zerri hazkuntzan profesionalki arituko direnak larraska egiten ahalko dute, gehienezko 10 hektarearekin.

Gainera, luberrietan fruta-arbolak eta laboreak landatzen ahalko dira; artoa, ogia eta nekazaritza proiektuaren araberako bertze laboreak.

Azkenik, azaroaren 1etik martxoaren 15era luberriaren ustiatzen kanpoko azienda alhatzeko aukera izanen da, adibidez, urtean barna behiak alhatzen badira, epe horretan ustiatetik kanpoko ardiak sartzen ahalko dira.

«Luberrien banaketa zuzena» Ordenantza hauen helburua «luberrien banaketa zuzenagoa» egitea da. Horretarako kontuan izan dute Baztanen, gaur egun, 2.200 hektarea luberriz daudela bakarkako aprobetxamendu gisa erabiltzen direnak. «Toki batzuetan ia ezinezkoa da luberriz gehiago ateratzea. Baina aldi berean eskaerak segitzen du, nahiz eta azienda kopurua urtetik urtera guttitu. 2000 urtean 46.055 ardi bazeuden, 2016an 34.819. Behiekin ere 2000 urtean 11.032 eta 2016an 9.337.»

Ordenantza berridatziko dute jendearen aitzinean erakusteko eta protokolo eta laneko prozedurak finkatuko dituzte. Uztailako bilkuran sartuko da indarrean ordenantza berria.



(H)ILBELTZAK

## Jendetza bildu du aurtengo (H)ilbeltzak

### TTIPI-TTAPA

Ilbeltzako azken astean ospatu zuten Baztanen (H)ilbeltza Euskal Nobela Beltzaren astea. Astelehenean hasi eta igandera bitarte egitarau zabala prestatu zuten antolatzaileek, eta jendetzak parte hartu zuen ekitaldietan, batez ere asteburuan.

Astelehenean hasi zen ekimena Koldo Biguri idazlearen solasaldiarekin. Iazko (H)ilbeltza bekaren irabazleak Massimo Carlotto idazlearen *Arrivederci amore, ciao* nobela itzuli du euskarara, eta nobelaren inguruko solasaldia izan zuten Arizkongo Medikuen Etxean.

Asteazkenean izan zuten jarraipena Anizen egindako solasaldiarekin. *Euskal gaizkileak* podcastaren inguruan aritu ziren Beñat Hach Embarek podcastaren zuzendariarekin. Belateko lapurra kondairaren inguruan mintzatu ziren, eta kondairaren inguru-

ruko bertsoak ere kantatu zituzten.

Ortziralean Marga Andurain baionarraren bizitzaren inguruko hitzaldia eman zuen Ainize Madariagak, eta jendetza bildu zen Arizkunenean. Larunbatean ere leku berean egin zuten zita *Hondar Ahoak* telesailaren inguruko solasaldia egiteko. Handik Erratzura joan ziren, eta ohiko bazkari gabe, baina arratsaldean Itxaro Bordaren *Euri zitalari esker* liburuaren aurkezpena izan zuten.

Aste Beltza borobiltzeko, itzuli beltza eta errezialdia izan zituzten Iruritan. Jende aunitz bildu zen lubakietako oroiminak oroitzeko eta Frantziska, Joxe eta Luziaren gerra garaiko istorioak ezagutzeko aukera izan zuten. Akitzeko, *Frankenstein agurgarria*, *Gutun musikatuak* Victor *Frankenstein* errezialdiaren estreinaldia izan zen Petti eta Ana Galarragaren eskutik.



# Otsaila feminista Baztan Iñarrosi taldearen eskutik

Hainbat jardunaldi antolatu dituzte, tailer eta solasaldiekin, baita Kai Nakai artistaren kontzertua ere

## TTIPI-TTAPA

Baztan Iñarrosi talde feministak «gure arteko harreman zis-hetero-patriarkalak birpentsatzeko jardunaldiak» antolatu ditu Baztango Talde feministarekin, Gazte Asanbladarekin eta Baztango Udalaren laguntzarekin. Egitarau zabala izanen dute eta otsailean egingen dituzte ekitaldi guztiak.

Hilaren 12an San Valentil eguna ospatuko dute. Horretarako, maitasun erromantikoa buruzko tailerra egingen dute 17:00etan Baztango gaztetxean. 19:00etan leku berean mural bat margotuko dute, eta 21:30ean Neska\* gazteen afaria egingen dute. Hiru jarduera hauek ez-mistoak izanen dira. Eguna borobiltzeko, 23:00etan gaztetxean Kai Nakaiaren kontzertua izanen



Kai Nakaiaren kontzertua ere izanen da.

da denendako eta ondotik guatekea egingen dute.

Otsailaren 18an ligoteo sanoaren inguruko tailer ez-mistoa egingen dute Baztango neska\* gazteek Arizkunenean 17:00etan. Gizonendako, berriz, maskulinitateari buruzko lantegia izanen da otsailaren 8an, 15ean eta 22an gaztetxean 18:00etatik 20:00etara, Hiruki Larroxaren eskutik.

## Jubiloteka egiteko bilera Iruritan

Iruritako Herriak jubiloteka zerbitzua martxan paratzeko bilera egingen dute otsailaren 14an 10:00etan, Erdiz gelan, Erreboteko plazan. Adindunei «aisialdi aktiboa lantzeko espazioa» eskaini nahi diete, eta ariketa fisikoak, estimulazio kognitiboa eta solasaldiak izanen dituzte bertan.

# Gazte martxako musika taldeen berri eman du Ernaik

28 musika taldek parte hartuko dute jaialdian eta sarrerak salgai paratu dituzte dagoeneko

## TTIPI-TTAPA

Egindako azken prentsurrekoan Ernaik 2022ko Gazta martxaren nondik norakoak azaldu zituen; Zugarramurditik abiatuko da apirilaren 14an eta Erratzutik pasatuta Elizondora ailegatuko da asteburuan. Bertan, hainbat taldek joko dute antolatutako musika jaialdian. *BostEHun eta zutik!* lelopean antolatu dute aurtengo ekitaldia, Amaiurko gazteluko setioaren 500. urteurrenari erreferentzia eginez.

## Musikaz beteriko asteburua

Guztira 28 musika taldek joko dute jaialdian, hau izanik zerrenda osoa: Streetwise, Nikotina, McOnak, Perlata, Willis Drummond, Crim, Tremenda Jauria, Skakeitan, Xiberoots, Kaleko Urdangak, Liher,

Rukula, La Furia, Yare Collective, Aiaraldeko Sound System, Ibil Bedi, Sua, Tribade, Iruñerria Jamaica Clash, Pleura, Marta & Herbass, Romea, Silitia, Dupla, DJ Reimy, XSakara, Skabidean eta Iheskide.

Ekimen osorako sarrerak salgai paratu dituzte 35 euroren truke. Txartelak online eros daitezke bibe.me webgunearen bitartez edo Euskal Herriko hainbat tabernatan; Erratzuko Zubi puntan, Elizondoko Intzan, Lesakako Arranon, Gasteizko Garraxin, Donostiako Herrian, Bilboko Errondabiden eta Kurrulin eta Iruñeko Herrikoan, Aitzinan eta Monton tabernetan. Egun bakarreko sarrerak aitzinera-go paratuko dituzte salgai, egitarau politikoa zabaltzearekin batera.

## Berdintasun Batzordearen bilera 10ean

Baztango Berdintasun Batzordeak urteko lehenbiziko bilera egingen du otsailaren 10ean, 18:00etan Balleko Etxean. Azken hilabeteetako berdintasun planaren txostenaren egoeraz eta indarkeria matxistaren diagnosi eta protokoloaz arituko dira eta urteko plangintza proposatu eta adostuko dute.



647 77 31 33

**Eguzki plaken instalazioak,  
argiztapen-azterketak  
eta elektrizitate lanak orokorrean**





Herriko Etxea duela 100 bat urte, oraindik frontoi zaharra egin gabe. ARTXIBOKOA

## Herriko Etxea berritzeko lanak Bengotxearen esku

690.000 euro ingurutan egingen ditu eta 2023ko udarako finitzea espero dute

### MARIFA ETA KORO

Lehenbiziko saiakeran nehorik hartu ez zuenez, Herriko Etxea berritzeko lanen bigarren eskaintza egin zen, aldi honetan 722.885 euroko hasierako prezioan (gan den abuztuan atera zenean 491.000 eurotan eskaini zuten). Aldi honetan izan dira lana hartzeko prest dauden kontratistak eta Bengotxea eraikuntza enpresak hartu du lana, hori baik prezio apalago batean: 690.000 euro gutti goiti beheiti.

Bertze bi kontratista gehiago aurkeztu direnez, orain alegazio epe bat edeki da,

baina ez bada deus makurrik gertatzen, lanean hasi eta heldu den urteko udarako (2023) finitzea espero dute.

Lan haundia egingen da, guzti-guztia berrituko delako: azpiko solairuan sukaldea, ostatua eta jatetxea egingen dituzte. Lehenbiziko solairuaren erdia ere jabetzea izanen da, eta bertze erdia udaleko bulegoak jartzeko egokituko dute. Bigarren solairuaren erdia bizitegia izanen da, eta bertze erdia erabilera anitzeko tokia. Teilatua konponduko dute eta igogailua ere paratuko dute.

## Korrika apirilaren 9an pasako da eta lehenbiziko prestaketa bilera egin dute

### MARIFA ETA KORO

Aurten Korrika herritik pasatuko zaigu (apirilaren 9an) eta horren prestaketetan hasteko, gan den ilbeltaren 28an bilkura bat egin zen.

Bi herrien artean, Zugarramurdi eta Urdazubi artean, bederatzi kilometro egingen

dituzte, Gaineko Bentatik hasiz eta Dantxarineraino. Larunbata izaki, ekitaldiren bat prestatzeko asmoa dute. Deskontuak eskaintzen dituzten Korrika-laguntzaile txapak 12 eurotan salgai daude. Hurrengo bilera hilaren 18an egingen dute Akelarrenean 19:00etan.



MARIFA ETA KORO

## Behetiko karrika oraindik hutsago

Azaroan hil zen Beretxeko Anita, eta herritar bat galtzeaz gain, Beheitiko karrika oraindik hutsago gelditu zen. Karrikak dituen 15 etxeetatik 7 hutsik daude, eta gauza beretsua gertatzen da gainerako karriketan ere. 1960ko hamarkadako argazkian Felix eta Evangelina lehenkusinak ageri dira Beheitiko karrikan.



**OROIGARRIAK**



**KULTURKARI**


Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:

Tel: 948 63 54 58

kulturkari@ttipi.eus

www.kulturkari.com



- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak

- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira





Beti Gazte elkarteak bulegoa, bilkura batean. GANEX

## Beti Gazte elkarteak zehaztu ditu urteko elkarretaratzeak

Biltzarrak apirilaren 2an, ereiarioaren 25ean eta hazilaren 5ean, eta Azkaineko abesbatza uztailean eta abuztuan

### GANEX

Urte guziz bezala, Beti Gazte elkartearen bulegoa elkar-tu da Denen Etxeko bere gelan, 2022ko manifestazioak nola egin ikusteko. Badu bi urte ez dituztela egin behar den bezala pandemiarengatik, baina aurten espero dute egitea usaiako elkarretatzeak. Horretarako zehaztu egin dituzte datak.

### Biltzar nagusia apirilaren 2an Lur Berri gelan

Biltzar nagusia bazkariarekin apirilaren 2an egingen dute Lur Berri gelan; bigarrena

ereiarioaren 25ean eta hirugarrena hazilaren 5ean, beti larunbatarekin. Non egin ikusi beharra dute oraino.

### Azkaineko abesbatza uztailearen 6an eta abuztuaren 31n

Bertzalde Azkaineko Abesbatzak egingen ditu bi kantaldi elkartearentzat, uztailearen 6an eta abuztuaren 31n, asteazkenetan arratseko bederatzietan Sarako elizan.

Horra zer pentsamenduak izan dituzten kafe baten aitzinean, agian suerte ona izanen dute.

### Eskola publikoko gurasoen selauru hustea igandean

Eskola publikoko gurasoek antolatutako selauru hustea otsailaren 13an egingen dute kiroldegian. Igandean 09:00etatik 18:00 arte. Interesatua dagoenak izena eman dezake 062938 1828 telefonora deituz., Lekuaren prezioa 18 euro. Jatekoa eta edatekoa izanen da.

### Hamar hilabetez 2.380 xerto eman dituzte herrian

Saran gelditu da xertoen ematea, mementoko bederen, 2021eko martxoaren 25etik 2022ko urtarrilaren 20 arte 2.380 xerto eman dituzte, hilean bi aldiz, ortzegunetan. Eskerrak mediku, erizan eta kontseiluko sozialeko taldeari, dena berek egin baitute.



Neurriak hartuz inauteriak ospatzea erabaki dute gazteek. ARTXIBOKOA

## Junta aldatu eta inauteriak ospatzea erabaki dute gazteek

### ARANTXA ETA IRAIA

Joan den urtarrilaren 28an gazteen bilkura izan zen eta hainbat gairi buruz mintzatu ziren. Lehenik, gazteen juntaren aldaketa eman zen, Estitxu, Jon eta Maddik lekukoa eman zieten Imanol, Iban eta Joni, lehendik zeuden Jaione eta Angelekin batera bortz pertsonako taldea osatuz.

Horrez gain, inauterien gaia ere izan zuten solasgai. Denen arteko bozketaren bidez inauteriak ospatzeko nahia adierazi zuten, eta gaur egungo neurriak kontuan hartuz, inauteriak ohiko datetan, ahal

bezala ospatzea erabaki zen. Lan horretan sartu ziren buru belarri juntakide guztiak.

### San Anton egunik gabe

Urtarrilaren 17a egun seinatua izaten da herrian. Laborarien eguna izaki, hainbat herritar elkartzen ziren lehenik meza entzun eta gero bazkari eder baten inguruan beraien eguna ospatzeko. Aurten, joan den urtean bezala, egoerak ez du horrelako ospakizunik egitea utzi. Heldu den urtera arte itxaron beharko dugu berriz ere laborariak elkartuak ikusteko!

### Xaretako pastoralean parte hartzeko deia

Urtarrilaren 16an hasi ziren Xaretako herrien artean prestatzen ari den pastoralarendako mustraka edo entseguak. Hemendik aitzinera bi astetik behin izanen dira, baina jende gehiago behar da, gehien bat haurrak eta gizon gazteak. Urdazubiarrak ere animatu!

### Bizilegea: batzuk etorri eta bertzeak joan

Ilbeltzaren 14an sortutako Noa Hernandez Otheguy aurtengo lehen haurra izan da. Iazko azkena azaroaren 30ean sortu zen Aiur Iparragirre Mitxelena izan zen. Urte hasierak berri txarririk ere utzi du, Juan Alzuale eta Dioniso Mujika zendu baitira ilbeltzean. Doluminak familiei.



-  Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
-  Sagardo ekologikoa
-  Sagardotegiko menua
-  Asteartetik larunbatera afariak, larunbat eta igandeetan bazkariak

**102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130**



Martxoaren 13rako antolatuta dute Senpereko Trail famatua. JL BESSONART

## Kirol munduaren berri eman dute SPUC aldizkarian

Zazpi sekzioek egiten dituzten aktibitateak plazaratzen dituzte urtekarian, ongi ilustraturik

### JEAN LOUIS BESSONART

Egun hauetan etxez-etxe ibili da Spuc Kirolak batasuneko kide andana, beren urteko aldizkaria eta egutegiaren banatzen. Aipatzekoa da liburuxka humen egiteko zer lana daramaten, hemen zehazki zazpi sekzioek egiten dituzten aktibitateak plazaratuak dira, ongi ilustraturik. Omenduak izan dira, joan diren bi kide, elkartearen zutabe izan direnak urtez-urte: Christian Bonnehonek 22 urte eman ditu elkartearen zerbitzari, bereziki eskubaloia kudeatuz. Michel Pomadere *Pompom* gizon alai maitagarri honek, hastapenetik lanari lotu da, Spuc Kirolaren lehendakaritza eramane du 1995ere arte eta ondotik errugbiarena hainbat urtez. Txeutx Etxeberri eta

Benat Jorajuria, elkartearen zuzendari bikoteak adierazi duenez, «aktibitate gabeko garai luze honen ondotik, espero dugu gure buruzagiek, gure hezitzaileek, gure jokolariek, berriz atxemanen dutela motibazioa lehiaketan bidera heltzeko eta denek lagun arteko momentu goxoen pasatzeko kirolaren inguruan». Dominique Idiart auzapezak eskertu ditu arduradun guztiak eta azpimarratu ere krisi horrek erakutsi duela batez ere kolektiboaren garrantzia, baita nola kirol kluba eta ekitaldiek animatzen duten herriaren bizitza ere. Bertze baterako utziko ditugu sail bakoitzeko aktibitateen azterketa. Aldiz, gaurdanik nota zuen egutegietan Senpereko Trail famatua martxoaren 13an iraganen dela.

## Haur Handiak eta Lamothe Larrekon

Des Grands Enfants (Haur Handiak) bikoteak musika emanaldia eskainiko du otsailaren 26an, larunbatean 20:00etan Larrekon. Aitzinetik, Eneko Lamothe, 23 urteko herriko musikaria ariko da. Herriko kontseiluak antolatutako emanaldira sartzeko 16 euro ordaindu beharko da,



Zakuzaharrak Urguri animatzen. JL BESSONART

## Otsailaren 12ra arte ihauterietako ospakizunetan ari dira larunbatero

### JL BESSONART

Ohidura onak ez dira aldatzen. Urtarrilaren 21etik otsailaren 12ra arte, larunbat guziz, gazte tropela ederra kantuz eta dantzez animaturik gure etxetara hurbiltzen ari dira ihauterien ongi ospatzeko. Gure harrera onena zor diegu. Zakuzaharrak elkarrekin antolatzen du ekimena, auzo batzuetan ibiliak dira jadanik eta

ontsalaz ez dute nehor huts egiteko esperantzarik. Garai batean «xingar eta arraultze, bat edo bertze» eskatzen zuten afari on baten mentura baizen, oraingoan dirua edo edariarekin ere ez litaizke haserre. Otsailaren 12an besta erraldoi batekin bururatuko dira ihauterietako ospakizunak, menturaz Zanpantzarren epaiketara, erretzera kondenatuko dute.



Soto eta Arzallusen bertsoei adi Larraldean. JL BESSONART

## Amets Arzallus eta Julio Sotorekin bertso saio ederra Larraldean

### JL BESSONART

Amotz- Larraldeko behitegian ginuen hitz-ordubikaina Amets Arzallus eta Julio Soto bertsolariekin. Askatasun osoz beren talentua azaldu dute, plazer handiarekin eta publikoaren atseginetan. Krakada-

ren aitzakian sekulako emanaldia eskaini dute, jolasean ari balitz bezala, holako baldintzetan nola ez daiteke maitatu betsolarietza? Hurrengo bertso saioa, martxoaren 13an Bertso Saioa, Herri-Urratsen alde, Larreko kulturgunean.





Elexpuru, Zupiria, Olló, Arregi eta Sarasola, Iruñean egindako ekitaldian. UTZITAKO ARGAZKIA

## Arnasa Gara beka jaso du Mairu antzerki tailerrak

23.000 euro izanen ditu 'Intxaurrak' antzezlana sortu eta ekoizteko eta azaroan estreinatuko dute Azpeitian

### TTIPI-TTAPA

Lesakako Mairu Antzerki Tailerrak sortutako *Intxaurre* lanari eman zioten Arnasguneak antzerki-beka, deialdia antolatu duten Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) ilbeltzaren 27an Iruñean egindako ekitaldian. Taldeak 23.000 euro jasoko ditu antzezlana sortu eta ekoizteko, azaroan Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan estreinatuko den bekaren oinarrietan zehaztutako baldintzekin. Ekimena hiru erakundeek 2019an sortutako *Arnasa Gara* programaren barnean dago, udalerri euskaldunek eta arnasguneek euskarari egiten dioten ekarpena nabarmentzeko eta herritarrak kontzientziazteko helburuarekin.

Testua sortu duen Mairu Antzerki Tailerreko Gaizka Sarasolak argitu zuenez, gaitortutako intxaurre baten iruditik abiatuta, enborra biziberritzeko beharra islatuko du obrak, gainerako adarrak ere osasuntsu mantendu ahal izateko. «Era horretan, histo-

riaren bitartez, euskararen arnasa osatzen duten herrien ezaugarriak, kezak, mugak, iragana eta etorkizuna agertuko dira, betiere sormena eta antzerkiaren kodeak lehentsita», aipatu zuen Sarasolak. Obraren zuzendaria Manex Fusch izanen da.

Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollók era horretako ekimenak Nafarroan duen garrantzia azpimarratu zuen, «arnasguneak ezinbestekoak baitira euskara biziberritzeko». Nafarroako Gobernuaren Euskararen Plan Estrategikoaren helburu nagusietariko bat euskararen egoera hobetzea dela nabarmendu zuen, «erabilera bultzatuz, batez ere euskararen dentsitate handiko udalerrietan eta euskararen bizitasun handiko lekuetan», hots, ar-

### ARNASGUNEK EUSKARARI EGITEN DIOTEN EKARPENA NABARMENTZEKO

nasguneetan. «Nafarroako udalerri euskaldunetan, normalean euskaraz bizi daiteke modu naturalean. Euskararen dentsitate handiko guneetan edo 'arnasguneetan', berriz, euskara belaunaldi batetik bestera transmititzen da, hizkuntza etengabe biziberrituaz eta aniztasun eta kulturari ekarpen garrantzitsua eginez».

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua den Bingen Zupiriaren solasetan, beka hau jada bidea egiten ari den Arnasa Gara kanpainaren jarraipena da: «2019az geroztik, hainbat kanpaina egin ditugu arnasguneek euskara biziberritzeko prozesuan duten garrantzia azpimarratzeko helburuarekin, gure hizkuntzarentzat funtsezko guneak izateagatik».

UEMAren izenean, Aitor Elexpuruk, Zuzendaritza Batzordeko kide eta Berako alkateak adierazi zuenez, «herritarren kontzientziazioa giltzarria da hizkuntza-ohituraren inguruan gogoeta egin eta horiek bultzatzeko. Horixe bultzatu nahi dugu antzezlanean». Era berean, Elexpuruk nabarmendu zuen Azpeitiko Udalerriaren eta Azpeitiko Dinamoaren Sormen Zentroaren lankidetzaren izenarekin: alde batetik, obra Azpeitiko Euskal Antzerkiaren Topaketetan estreinatuko delako, azaroan; eta, bertzetik, Mairu Antzerki Tailerreko kideek Dinamoaren Sormen Zentroa erabiltzeko aukera izanen dutelako obra sortzen ari diren bitartean.

## Abizenak euskal grafiaraz paratzeko 'Euskaraz naiz' kanpaina abian

### TTIPI-TTAPA

Eskualdeko euskara zerbitzuek, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekin (UEMA) elkarlanean, abizenak euskal grafiarekin paratzeko kanpaina abian jarri dute, *Euskaraz naiz* leloarekin, eta herritarrak animatzen dituzte beren abizenak zuzentzeko urratsa egin dezaten. Bereziki dei egiten diete guraso izateko bidean direnei edota 18 urtetik beheretiko seme-alabak dituztenei. Izan ere, helduek abizenak euskal grafiarekin jartzeko tramitea eginez gero, seme-alabei automatikoki abizena behar bezala erregistratua geldituko zaie.

### Zer egin behar da?

Hiru urrats erraz hauek eman behar dira:

1. Joan bizi zaren herriko Erregistro Zibil edo Bake Epaitegira eta erran abizenak euskaraz paratu nahi dituzela.

2. Eraman agiri hauek:

- NAN originala eta haren fotokopia;

- Gurasoen NANaren fotokopia, adinez nagusia ez bazara.

- Seme-alaben NANaren fotokopia, 16 urtetik gorako seme-alabak badituzu.

- Hitzek hitzeko jaiotza ziurtagiria: Bizi zaren herri berean inskribatuta ez bazaude.

Errola-agiria. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere bai.

- Familia-liburua eta haren fotokopia: Ezkonduta bazaudu edo/eta seme-alabarik baduzu.

3. Erregistro Zibilean edo Bake Epaitegian emanen dizuten eskaera orria zure datuekin bete.

Tramitazioa bukatu ondoren Nortasun Agiria eta gainerako dokumentazioa berritzen ahalko duzu.



Azken bi partidetan aritu ziren pilotariak (Apeztegia) falta, Laxoa Elkarteko eta bertze ordezkariekin. JUAN MARI ONDIKOL

## Urtasun, Zelaieta eta Apeztegia izan dira paxakan txapeldun

Ilbeltzaren 22an Irurritako Aranabian jokaturako finalean 9-6 irabazi zieten Urrutia, Bereau eta Maiari

### TTIPI-TTAPA IRURITA

Laxoa Elkarrean antolatutako Nafarroako 22. Paxaka txapelketako azken bi partidak jokatu zituzten ilbeltzaren 22an Irurritako Aranabia pilotalekuan. Lehenik hirugarren posturako lehia jokatu zuten eta ondotik, final nagusia. Pilotalekuan bildu zen jendetzak bi partida ikusgarriekin gozatu ahal izan zuten.

Hirugarren posturako lehia ezin estuagoa izan zen. Azkenean, Manu Irigoien (Erratzu), Mikel Sagaseta (Iruirita) eta Kaiet Itoitzek (Erratzu) osatutako hirukoteak 9-8 irabazi zion Xabier Barberena (Iruirita), Egoitz Prim (Iruirita) eta Aritz Alundak (Arraioz) osatutakoari.

Ondotik, final handia jokatu zuten. Oskar Urrutia (Iruirita), Iker Bereau (Oiz) eta Juan Mari Maia (Elizondo) txapel-

ketako partida guztiak irabazita ailegatu ziren finalera, bai hasierako fasekoak, baita finalerdiak ere. Hasierako fase hartan gainera, 9-0 irabazi zioten finalean arerio zuten Gorka Urtasun (Iruirita), Ugutz Zelaieta (Oiz) eta Jabi Apeztegia (Doneztebe) hirukoteari. Baina finala guztiz ezberdina izan zen. Hasieratik agintzen hasi ziren Urtasun-Zelaieta-Apeztegia eta 5-1 eta 7-2 paratu ziren markagailuan. Ez zuten etsi, ordea, Urrutia-Bereau-Maiak eta 8-6ra hurbildu ziren. Baina azken jokoa egin zuten urdinek eta txapela janz-

### EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAN ARI DIRA BAZTANGO BI BIKOTE

tea lortu zuten. Sari banaketan, Laxoa Elkarteko ordezkariekin batera, Pello Iriarte Irurritako alkatea, Kaiet Itoitz Erratzuko alkatea eta Nafarroako Pilota Federazioko Manex Pedroarena izan ziren.

### Euskal Herriko txapelketan

Aipatzekoa da, konfinamenduak direla eta Aranabian izandako itoxurak direla, zenbait aldaketa egin behar izan dituztela aurtengo txapelketaren egitarauan. Finala bera ere, lehenik astebete gibelatu zuten eta gero, igandetik larunbatera pasatu zuten, igandean Euskal Herriko Paxaka txapelketako partidak jokatu behar zituztelako zenbait pilotarik. Iaz ez Euskal Herriko paxaka txapelketarik jokatu eta lehen mailako azken txapeldunak baztandarrak direla, 2020an Gorka Urtasun iruritarra eta Aritz Alunda arraioztarra suertatu baitziren txapeldun.

Aurten, bigarren mailan ari dira Manu Irigoien eta Juan Mari Maia, alde batetik eta Mikel Sagaseta eta Egoitz Prim, bertetik. Ilbeltzaren 30ean jokatu zuten txapelketako jardunaldia Elizondoko Antxitonea trinketean, Baionako Avironeko bikoteen kontra.



Oinatz Bengoetxea pilotari leitzarra.

## Otsailaren 26an jokatu du azken partida Labriten Bengoetxea VI.ak

### TTIPI-TTAPA LEITZA

Oinatz Bengoetxeak urtarriaren 29an jokatzekoa zuen frontoi handietako profesionalatoko azken partida Iruñeko Labrit pilotalekuan. Baina astebete lehenago Markinan jokatu zuen partidaren min hartu eta azken partida hori eta azkenaurrekoa atzeratu egin behar izan dituzte. Lesio horretaz osatzeko geldirik dago orain Bengoetxea baina, zuzen bidean, Tolosako Beotibarren otsailaren 21ean eta Iruñeko Labriten otsailaren 26an jokatu ditu hondarreko partidak. Tolosako jaialdirako sarrerak salgai daude *entradasfronton.com* webgunean. Iruñean urtarriean jokatu behar zuen partidarako sarrera guztiak salduak zeuden eta horiek berak erabil daitezke otsailaren 26ko jaialdirako. Baliteke, halere, sarrera batzuk bueltatu izana eta horiek erosteko aukera izatea.

Halere, TTIPI-TTAPARI jakinarazi dionez (798 zk.), aurrenantzean frontoi txikiagoetan jokatzeko segitzeko asmoa du oraindik Oinatz Bengoetxeak. Martxoaren 11n, adibidez, Añorgan antolatu duten elkartasun jaialdian aritzekoa da eta urrian jokatu nahi luke «azken partida galtza txuriek» Leitzako plazan.





Beti Gazte txapelkun, Gaztedi eta Ibarra, 540 kiloko Euskal Herriko sokatira txapelketako podioan. POTRONKO

## Beti Gazteko emakumeak ere txapelkun

Euskal Herriko sokatira txapelketa irabazi zuten hilaren 29an Bakion (Bizkaia), 540 kiloko kategorian

### TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketan emakumezkoen 540 kiloko kategorian hirugarren jardunaldi erabakigarria jokatu zuten ilbeltzaren 29an Bakion (Bizkaia). Beti Gazteko taldeak ez zuen hutsik egin: tiraldi guztiak irabazi eta txapela jantzi zuen. Bigarren

Gaztedi izan zen eta podioko hirugarren koskara Ibarra igo zen. Ondotik sailkatu ziren Badaiotz, Abadiño A eta Abadiño B.

Beti Gazteko zortzikote txapelkudean Amaia Leiza, Ainhoa Etxegarai (Bera), Udane Arbelaitz (Oartzun), Irantzu Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Ainhoa

Ubiria, Maddalen Lopez eta Maria Iantzi (Igantzi) aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzailea eta Arritxu Muxika laguntzaile zutela.

Emakumez gain, gizasemeen 600 kiloko kategoriako lehen jardunaldia ere jokatu zuten. Beti Gazteko lortu dituzten arteko bi txapelak, 680 eta 640 kilokoa, baina 600 kiloko lehen jardunaldian hirugarren izan zen eta Amaiur seigarren.

Otsailaren 12an Pobesen jokatu dute kategorian honetako finala Bakion eta Erandion (otsailaren 5ean) puntuazio onena lortu duten sei taldeek. Beraz, finalera sailkatzeko bide onean zeuden bai lesakarrak, baita amaiurtarrak ere.


## Jose txo Ezkurra XXXI. Memorialean izena emateko epea akitzera doa

### TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka elkarteak hogeita hamaikagarren aldiz antolatutako Jose txo Ezkurra Memorialeko pilota txapelketan izen emateko epea zabaldu du. Eskuz banaka eta lau eta erdiaren barrenean jokatu den txapelketan, benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior mailako pilotariek eman dezakete izena otsailaren 13ra bitarte.

Horretarako, [salaae@gmail.com](mailto:salaae@gmail.com) helbide elektronikora idatzi behar da, telefono zenbaki bat eta posta elektronikoko helbide bat adieraziz. Benjamin eta alebin mailan Nafarroako pilotariak bakarrik onartuko dituzte.

Txapelketa martxoaren 13an hasiko da eta maiatzaren 14an jokatu dituzte finalak. Maila guztietan txapelketa irekia izanen da, kategorian bakoitzeko 32 pilotari onartuko dira eta kanporaketa moduan jokatu da. Igande goizez jokatu da diratik.



MAIALEN ANDRES

## Juanenea Master finalerdian

Master txapelketako estreineko partida Aritz Zubiri irabazita, otsailaren 2ko finalerdian Barrenetxearen kontra jokatzeko txartela lortu du Aritz Juanenea saldiastarrak. Bertze finalerdian Ansa II.a eta Urriza aritzekoak ziren eta finala hilaren 19an jokatu dute.



UTZITAKOIA

## Jose txo Ezkurra berriz Oriamendirekin

Oriamendi enpresara bueltatu da Jose txo Ezkurra errementista doneztebarra. Ilbeltzaren 29an jokatu zuen estreineko partida eta gibekeko kuadroetan lagun izan zuen Juanenea saldiastarra, postu berrian. 40-36 irabazi zieten Segulolari eta Barrenetxea IV.ri

## OTSAILAK 10 - 24

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



### DONEZTEBE Haurrentzako zinema

Erreka guraso elkarteak antolatua. Sarrera euro batean bazkideentzat eta bi eurotan gainerakoentzat. *Zineman, otsailaren 13an 'Pikachu detektibea' (euskaraz) eta 27an 'Luca', 17:00etan.*

### MUSIKA

#### AMAIUR

##### Bailableak

Muxikoak, jota eta larrain-dantza. *Otsailaren 13an, 12:30ean.*

#### BERA

##### Klarinete, saxofoi, txirula eta tronboi entzunaldia

Isidoro Fagoaga musika eskolaren eskutik. *Kultur etxean, otsailaren 15ean, 18:00etan.*

##### Gitarra entzunaldia

Isidoro Fagoaga musika eskolaren eskutik. *Kultur etxean, otsailaren 17an, 18:00etan.*

#### ARRAIOZ

##### Baztan kantuz

Plazan, *otsailaren 20an, 12:00etan.*

#### ELIZONDO

##### Arima Soul taldea

70eko hamarkadako R&B, soul, funk, groove eta jazz musika. *Arizkunenean, otsailaren 20an, 19:00etan.*

### JARDUNALDIAK

#### LESAKA

##### Arbolaren Eguna

Beti Gaztek antolatua. *Otsailaren 12an eta 19an.*

#### ALMANDOZ

##### Mahai-jokoan kutxa ibiltaria

Heldu, gazte eta haurrendako. *Otsailaren 12an eta 13an.*

#### GOIZUETA

##### Mendi irteera

Arainburu Umore Ona mendi taldeak antolatua. Sasaingo errekarari buelta zirkularra. *Plazatik, otsailaren 13an, 08:45ean eta 13:00etan itzulera.*

### IKUSKIZUNAK

#### LEITZA

##### 'Eresia' antzerkia

Oier Zuñigak Geuretik Sortua programan eginda. *Herri aretoan, otsailaren 13an, 19:00etan. Sarrerak leihatilan 45 minutu lehenagotik zortzi eurotan.*

#### BERA

##### 'Luces, música y acción' ikuskizun musikala

Suakai taldearen eskutik. *Kultur etxean, otsailaren 12an, 18:30ean. Sarrerak Agara prentsan salgai zortzi eurotan.*

##### 'Trapu zikinak' antzerkia

Lore More taldeak Geuretik Sortua programan eginda. *Kultur etxean, otsailaren 20an, 18:30ean. Sarrerak Agara prentsan salgai zortzi eurotan.*

### AZOKAK

#### BERA

##### Bertako ekoizleen merkatua

Gasna, eztia, ukenduak, arroltzeak... *Beralandetan, otsailaren 12an, 10:30etik 13:30era.*

#### ELIZONDO

##### Baztango artisauek eta zaporeak

Plazan, *otsailaren 19an, 10:00etatik 14:00etara.*

### ZINEMA

#### DONEZTEBE

##### Haurrentzako zinema

Erreka guraso elkarteak antolatua. *Zineman, otsailaren 13an 'Pikachu detektibea' (euskaraz) eta otsailaren 27an 'Luca', 17:00etan. Sarrerak euro batean bazkideentzat eta bi eurotan ez bazkideentzat.*

#### LEITZA

##### Zinema

Bi pase egunean. *Herri aretoan, otsailaren 19an eta 20an. 16:30ean 'Spiderman: No way home' eta 19:00etan 'Ilargi guztiak'. Sarrerak 45 minutu aurretik leihatilan, 4,5 eta 5,5 eurotan.*

#### LESAKA

##### Haurrentzako zinema

Guraso elkarteek antolatua. *Harriondoan, otsailaren 20an.*

### SOLASALDIAK

#### GOIZUETA

##### 'Tratu onen kultura gurasogintzan'

Arremanitz kooperatibaren eskutik. *Udaletxeko ganbaran, otsailaren 10ean, 17:00etatik 19:00etara.*

#### DONEZTEBE

##### 'Askatu edo moztu' liburuauren aurkezpena

Nora Salbotx idazlearekin. *Liburutegian, otsailaren 18an, 19:30ean.*

### TAILERRAK

#### DONEZTEBE

##### Poesia eta sormen tailerra

Julia Uceda poetaren lanketa. *Liburutegian, otsailaren 14an eta 15ean.*



Nire aukera

## «Rock musika jotzea ozeano batean igeri egitea bezalakoa da»

DENIS LEIZA PEREIRA LESAKAKO MUSIKARIA



DANI BLANCO / ARGIA

«Kultura maite duen Lesakako gaztea» da Denis Leiza Pereira (Lesaka, 1997). Musika jotzea eta aditzea, zinemara joatea eta «lagunekin trago bat hartzea» du gustuko. Ikus-entzunezko ekoizpena ikasi zuen Andoainen eta bere bi pasioetan egiten du lan gaur egun; musika eta zinemagintza.

### Hastapenak

Haurra zela, «solfeoa ikaste-ko saiakera egin nuen, baina segidan eman nuen amore» [irriz]. Hala ere, musikarekin segitu zuen, eta 12-13 urterekin hasi zen kuadrillako batzuekin talde batean baxua jotzen.

15-16 urterekin «musika serioago hartzen hasi nintzen», eta hortik aitzinera, «hainbat musika mota aditu ahala, hainbat proiektutan parte har-

tzen hasi nintzen; Kalera, Gabenara, Hurih, Modus, Géra... egunero zerbait berria ikasten nuen». Gainera, baxuko klaseak hartu zituen urte pare batez Ritxi Salaberriarekin (Sorotan Bele, Los del Gas, Orgasmic Toothpicks) Azkainen. «Bertze instrumenturen bat jotzen ikastea ere gustatuko litzaidake, baina. Beti izan dut bateria edo perkusioa jotzen ikasteko tentazioa».

**Taldea osatzeko gorabeherak** Donostiako Géra taldean jotzen du gaur egun Leizak. Andoainen ikasten ari zela, Markelek,

**«TALDEAN JOTZEKO ERRATEAN DUDARIK GABE EMAN NUEN BAI EZKOA»**

taldeko gitarrista eta abeslariak, «ea berarekin talde batean jotzera animatuko nintzen galdetu zidan, eta nik dudarik gabe baiezkoa eman nion». Bertan ezagutu zituen Iñigo taldeko bateria-jotzailea eta Mikel, «garai hartan nirekin batera sartu zen gitarrista». Denbora gutira Pablo sartu zen taldean Mikelen partez, «eta lehenbiziko kontzertua eman eta gero, Ferminek ordezkatu zuen Pablo». Gaur egun hauek osatzen dute taldea: Markel Alonso da gitarrista eta abeslaria, Iñigo Estonba bateria-jotzailea, Fermin Mendazonak gitarra jotzen du eta Denis Leizak baxua.

Hainbat musikari izan ditu Géra taldeak, «Manex eta Jon ere pasatu ziren taldetik ni proiektuan sartu baino lehen. Ez pentsa denbora aunitz zeramatanik talde gisa, hila-bete batzuk bakarrik. Momentu batez taldea madarikatua zegoela pentsatu genuen» [irriz].

### Lehen diskoa

Taldeak bere lehen diskoa kaleratu du berriki, *Géra* izenekoa. «Hasieratik kanta propioetan murgildu gara. 2019ko udan lagun batzuen etxean eman genuen azkeneko kontzertua, diskoa hilabete batzuetara grabatzeko intentzioarekin. Azkenean, 2020ko irailean grabatu genuen Berako Mik estudioan Maikelekin. Hortik urte batera guti goiti-beheiti bukatu genituen nahasketak eta masterizazioa». Diskoaren diseinuarekin ere «buelbaka ibili ginene», eta azkenean DG2C Studioko Jone Laspiurrek eta Diego Garciak egin zuten

**«TTIKITATIK GUSTATU IZAN ZAIT ZINEMARA JOATEA»**

diseinua; «diskoaren esentzia bete-betean asmatu zuten».

Taldearen musika «*math rock* edo *post rock*» generoetan sailkatu du, «baina gaur egun *rock* musika jotzen dugula erratea ozeano batean igeri egitea bezala da. Infinitoraino mugitzen zara zer topatuko duzun jakin gabe». Taldekide bakoitzak «bere gustu musikalkak ditu», eta diskoan hainbat artisten eragina antzeman daiteke; «Pelax, Borrokan, King Gizzard, Queens of the Stone Age...»

### Zinemagintzan murgildua

Musika ez ezik, Leizak «ttikitatik» izan du gustuko pelikula ikustea eta zinera joatea, «eta gaur egun gustu hori handitzen eta handitzen joan da». Andoainen ikasketak eginda hasi zen zinemaren munduan lan egiten; «hasieran ekoizpen lana egiten nuen baina nahiko agudo pasatu nintzen makinisten departamentura. Argiztapenean ere lanean ibili naiz».

Hainbat proiektu ezagunetan parte hartu du: «*Soinujolearen semea*, *Akelarre*, *El internado: las cumbres*, *Baztango trilogia*, *La trinchera infinita*-n aste pare bat platoan... Orain dela guti Paul Urkijoren *Irati* pelikula bukatu genuen eta momentu hauetan AEBko serie bat filmatzen ari gara Nafarroan eta inguruan».

Hala ere, musikaren eta zinemaren artean, «musika dut nahiago. Jai nintzenetik gaur egunera arte nire bizitzan hagitz presente egon da. Zinema beranduago deskubritu nuen eta bertzelako gauzak ekartzen dizkit».

Hortaz, etorkizunera begira, «parte hartzen dudana musika taldeekin diskoak ateratzen eta kontzertuak ematen» segitzeko asmoa du Leizak, «eta ahal den heinean, bidaiatzen. Bukatzeko, «gazteek *rock 'n' roll* gehiago aditzea nahiko nuke».

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

**BORTZIRIAK.** Borda salgai. ☎647 58 81 63 (deitu gauzez).

**ELIZONDO.** Erlategi karrikan, Baztan Berri ondoan, pisua salgai. Sukaldea, egongela, 3 logela, 2 komun, 2 balkoi eta sabaia. Igogailua eta garaje-ko plazarekin. ☎696 26 58 93.

#### ERRENTAN EMATEKO

**ELIZONDO.** Baztanberri aldean ekainera arte apartamentua errentan emateko. Sukalde-egongela, bainu-gela eta logela. Eguzkitsua. Igogailua eta berogailua. Mobleztatua. ☎649 44 67 32.

#### ERRENTAN HARTZEKO

**ELIZONDO.** Pisua errentan hartu nahi dute. ☎631 33 96 60.

**LESAKAN edo BERAN.** Bikote bat gara, umerik eta animaliarik gabe. Irailetik aurrera etxe baten beharra dugu. ☎629 83 77 95.

### LANA

#### ESKAINTZAK

**BAZTAN.** Landetxea garbitzeko norbait behar dute. ☎629 50 60 06.

LORPELAND (Ternua taldea) **Etxa-larko** lantegian produkzioko langile bila. Bi lanpostu hiru txandatan as-telehenetik ortziralera (tekniko elektromekanikoan esperientziadunak) eta bi lanpostu lanaldi jarraituan bi txandatan (arropa arloan esperientziadunak). [m.goienetxe@ternua-group.com](mailto:m.goienetxe@ternua-group.com) edo ☎948 63 53 84.

**ELIZONDO**ko autoen tailer batean lanaldi osoan aritzeko txapista behar dute. Esperientzia baldin badu hobe. ☎948 58 04 06.

**BERA.** Larunbat eta igandetan adineko bat zaintzeko zaintzaile euskalduna behar dute. ☎695 76 66 26.

**SARA.** Heldu tetraplegiko, autonomo eta aktibo batekin asteburuetan lan egiteko laguntzailea behar dute. ☎(0033) 610 75 21 71.

**BERA.** Beola Etxea Bentan lanaldi jarraian aritzeko biltegzaina behar dute. Eskorga jasotzaileko agiria duena eta frantsesa dakiena. Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com helbidera edo deitu. ☎948 63 07 09.

**BERA.** Auzoa ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dituzte. Interesatuak idatzi Whatsapppe. ☎657 47 20 20.

**ETXALARKO** Bentan, harreran aritzeko langilea behar dute, egun osoko lanaldian. ☎948 63 50 00.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

**ETXALAR**ko Bentan, gauzez zaintza lanak egiteko langilea behar dute. Otsailetik maiatzera astean bi egunez, eta ekainetik aitzinera lanaldi osoan. ☎948 63 50 00.

**IBARDIN.** Lanerako pertsona bat behar dute. Interesatuak curriculumak bidali: [ibardin.oferta@gmail.com](mailto:ibardin.oferta@gmail.com).

#### ESKARIAK

Hiritik ihesi, 42 urteko mutil donostiarra herri txiki batean lan bila, naturan. ☎617 60 53 89.

Emakume bat adinekoak edo haurrak zaintzen ariko litzateke, Nafarroa

iparraldean edo Gipuzkoan. Esperientziaduna. ☎677 24 93 27.

### DENETARIK

#### SALGAI

Etixerako **egur loteak** egiten dira, etxera eramateko aukerarekin. Horretaz gain, bertze edonolako lanak ere egiten dira, belai **itxiturak**, **garbiketa** edo mantentze lanak... Deitu konpromisorik gabe. ☎618 20 23 95.

## IRAGARKIAK INTERNETEN

Iragarkiak ERRAN.EUSen ere argitaratzen dira hilabete batez. <https://erran.eus/sailkatuak>



## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,43
- 1.koa 4,31
- 2.koa 4,19

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,54
- 1.koa 4,40
- 2.koa 4,29

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

##### Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

##### Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

##### Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,93/4,33
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,60/6,70
- 8-10 kilokoak: 5,40/6,10

#### ZERRI-AZIENDAK

##### Zerrikumea (19 kilo): 40 €

##### Zerri gizona 1,035 €

##### Zerramak 0,360€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua libeltzaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)



**Arraioz (Baztan):**  
Herrigunean bi lur eremu salgai, familia bakarreko etxea eta bi bizitzako etxea eraikitzeko.

 Pinar 7- IRUN  
 656 708 180  
 [info@inmotxapartegi.com](mailto:info@inmotxapartegi.com)  
[www.inmotxapartegi.com](http://www.inmotxapartegi.com)



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.

#### GALDU-AURKITUAK

**BERA.** Toki Ona institutuko atean giltzak agertu dira. ☎848 43 17 10.

### MOTORRAK

#### SALGAI



**Audi A4** autoa salgai, 2011koa, 2.0 TDI, 140 zaldi. Egoera ezin hobean, gutti ibilia eta beti garajejan egondakoa. ☎653 74 95 54 / 615 70 38 76.

#### EROSI

2018tik aitzinerako **bigarren eskuko autoa** erosi nahi dute: Berlingo, Partner, Rifter, Dacia dokker... ☎626 25 06 30.

### ANIMALIAK

#### OPARI EMATEKO



**URROZ.** Border collie mestizo zakurkumea oparitzeko. ☎648 41 84 78.



**SALGAI**  
**Bortz zerri** salgai. ☎630 94 75 24.

**ZERBITZUAK**  
**KLASE PARTIKULARRAK**  
**ELIZONDO.** Haurrentzako klase partikular presentzialak irakasle amerikarrarekin. Arratsaldez. ☎640 65 04 22 / [christinaprofesional@gmail.com](mailto:christinaprofesional@gmail.com)



URTEBETETZEAK



**Ibai Agesta Lanak** urtea bete du otsailaren 2an. Zorionak maitea!! Asko maite zaitugu, muxu handia!!



Zorionak!! **Oian Arregi Mutuberriak** 5 urte bete ditu otsailaren 2an. Espero dugu egun ona pasa izana. Leitzza eta Goizuetako familia.

**DONEZTEBEko AVIA GASOLINDEGIA**


**Club AVIA**

CLUB AVIA txartelarekin  
 %2ko deskontua erregaian  
 eta %5eko deskontua  
 dendako produktuetan

Leitzza bidea, 49 · T. 948 451 679 · [www.doneztebe.net](http://www.doneztebe.net)



**Lukene Mikelarena Larquék** otsailaren 13an urtea beteko du. Zorionak zure lehenengo urtebetetzean! Muxu haundi bat amatto eta attattoren partetik :)



Igantziako **Aiur Irazu Aragon** gure etxeko txapeldunak otsailaren 12an 9. buelta emanen dio eguzkiari. Segi jakin-min horrekin mundua deskubritzen. Auniz urtez familia osoaren partetik. Infinitu maite zaitugu **Aiur!!!**

**Liderrak**  
 gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIESeK **Nafarroa Garaiko mendialdean** hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.



**t-tipi-ttapa**  
 30.000 irakurle

**Diario de Noticias**  
 9.000 irakurle

**Diario de Navarra**  
 6.000 irakurle

**Bertze batzuk**  
 4.000 irakurle

**Berria**  
 3.000 irakurle

**Gara**  
 3.000 irakurle



DATU ITURRIA: CIES, 2021eko bigarren neurketa

SEXUAREN ARABERA


**%55,6**  
 EMAKUMEAK

**%44,4**  
 GIZONAK

ADINAREN ARABERA



IKASKETA MAILAREN ARABERA



SINADURA: T-tipi-Ttapa



URTEURRENA

**Joxe OLAZABAL IRASTORZA**  
1944-04-15 / 2021-02-13  
**I. urteurrena**

Senar maitea, attatto maitea, attona maitea orain dela urte bat joan zinen eta izugarriko hutsunea utzi zenigun. Denak zu oroitarazten digu baina zoriontsu bizi izan zinen eta hori da utzi diguzun ikasgaririk handiena. Segi guri indarrak bidaltzen. Maite zaitugu.

**EMAZTEA, ALABAK ETA BILOBAK**



OROIGARRIA

**Antonio ITURRIA LEKUONA**  
Lesaka, 1956-2022

Eskuzabal eta bihotz oneko, apaltasunez jantzia. Irrifarra beti ahoan, burua argi eta bizia. Zure oroimenak goxatzen gaitu emanaz indar handia. Beti gogoan izanen dugu erakutsi diguzun guzia.

**ZURE FAMILIA**



URTEURRENA

**Manuel TELLETXEA GOIKOETXEA**  
Ezkurran, 2021eko urtarrilaren 29an, 69 urte zituela  
**I. urteurrena**

Zure begien distira eta ezpainetako irria beti gurekin egonen dira ataxi maitagarria. Muxu handi bat.

**ZURE FAMILIA**



OROIGARRIA

**Dionisio MUGIKA ETXEBERTZ**  
Urdazubin, 2022ko urtarrilaren 23an

Nekazaritzan zein jatetxean umore onaren jabe langile bezain pertsona fina oroitzean parez pare dena desberdin izan behar da guretzat orain zu gabe gogoan izan nahiz eta egin Mikelenbordatik alde zauden lekuan zaudela ere gure bihotzetan zaudela.

**MIKELEN BORDAKO LANGILEAK**



OROIGARRIA

**Jose Martin SALDIAS ALTXU Antxone**  
Iturenen, 2022ko urtarrilaren 27an, 69 urte zituela

Hain goiz joatea ez zegon	Zurekiko maitasuna
Inolaz zure planetan,	Kantatuz bertso honetan,
Utzi gaituz malkoz blai	Umorea ta irria
Triste, minez ta penetan,	Beti zure ezpainetan,
Bidelagun paregabe	Gugatik dena eman duzu
Senar bikaina benetan,	Behar izan dugun denetan,
Aita ta ataubi onena	Millesker eta laster arte
Izanik urte hauetan,	Beti gure oroimenetan.

**ZURE FAMILIA**



URTEURRENA

**Xilberio APEZETXEA ZUBIETA**  
Goizuetan, 2021eko otsailaren 25ean, 81 urte zituela  
**I. urteurrena**

Gauero gordetzen da eguzkia Gaztabotza aldetik, balina zu ez zara sekula itzaliko gure bihotzetik.

**ZURE FAMILIA**





**BAZTAN BIDASOA**  
Ehorzketaz Zerbitzuak

**BAZTAN: ELIZONDO**n Santiago kalea, 79  
**BORTZIRIAK: BERA**n San Jose Beilatokian  
**MALERREKA: DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

**web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)**

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU | 948 48 95 50**  
**365 EGUN | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)**

Betiko taldea zu laguntzeko



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN AQUÍ, A TU LADO

**Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak**

**TANATORIOAK**

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

**24 h** Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**948 05 90 90 | [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)**





## HILBERRIAK

- **Naveilhan Ginette**, Sarakoa, urtarrilaren 19an, 93 urte zituela.
- **Arnaldo Goienetxe Bikondoa**, Elizondokoa, urtarrilaren 20an, 88 urte zituela.
- **Joaquin Ibarra Mariezkurrena**, Leitzakoa, urtarrilaren 21ean, 92 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Cruz Sagastibeltza Iturrarte**, Leitzakoa, urtarrilaren 21ean, 85 urte zituela.
- **Dionisio Mugika Etxebertz**, Urdazubikoa, urtarrilaren 23an, 86 urte zituela.
- **Casilda Telletxea Telletxea**, Leitzakoa, urtarrilaren 24an, 92 urte zituela.
- **Angustias Gama Rivas**, Berakoa, urtarrilaren 25ean, 88 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Jesus Arregi Lasa**, Elizondokoa, urtarrilaren 25ean, 97 urte zituela.
- **Epifanio Sarratea Ezponda**, Almandozkoa, urtarrilaren 27an, 79 urte zituela.
- **Jose Martin Saldias Altxu**, Iturengoa, urtarrilaren 27an, 69 urte zituela.
- **Candido Apezetxea Lukanbio**, Arantzakoa, urtarrilaren 27an, 81 urte zituela.
- **Rafael Ordoki Iturria**, Lesakakoa, urtarrilaren 27an, 88 urte zituela.
- **Juliana Bazterrika Legarreta**, Iturengoa, urtarrilaren 31n, 95 urte zituela.
- **Jose Mari Opoka Inda**, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 31n, 83 urte zituela.
- **Juan Jose Goikoetxea Etxenike**, Iruritakoa, urtarrilaren 31n, 68 urte zituela.
- **Francisco Javier Larrea Treku**, Berakoa, otsailaren 1ean, 73 urte zituela.
- **Anttoni Jauregi Loiti**, Elizondokoa, otsailaren 1ean, 95 urte zituela.
- **Juan Telletxea Alzugarai**, Lesakakoa, otsailaren 1ean, 86 urte zituela.

## SORTZEAK

- **Mairi Harregi**, Sarakoa, urtarrilaren 12an.

## SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58ra deitu edo 744 48 43 61era edo [info@ttipi.eusera](mailto:info@ttipi.eusera) idatzi beharko du.

# IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

## KONTATU KONTUAK



**22. Korrika aurkeztu dute Irunen.** Korrikaren lekukoa apirilaren 5ean Baztanen, 9an Malerrekana eta Bortzirietan eta 10ean Hendaian izanen dela oroitaraztearekin batera, «euskararen doakotasuna» eta «hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea ailegatu dela» aldarrikatu zuten ilbeltzaren 28an Behe Bidasoko hainbat euskaltzalek Irungo Avenida zubian egindako aurkezpenean, tartean Irungo, Hendaia eta Baztango Korrikako arduradunek. Korrikan parte hartzeko deia egin zuten eta «guztion ekarpen eta ahaleginen beharra» nabarmendu zuten: «Denon parte-hartzearekin lortuko dugu Euskal Herri euskalduna eta guztion esku eta oinei esker eraman ahal izanen dugu euskararen lekukoa Amurriotik Donostia».



**Jardunaldi aldaketa erabakitzeke gehiengo soilaren alde.** Eskolako ordutegian jardunaldi aldaketa erabakitzeke gehiengo soil nahikoa izatea eskatu dute Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola publikoetako hainbat gurasok, eta sinadura biltzeko kanpaina 2.000 familia baino gehiagoren sinadura ere bildu dute. Bozketaren formatuarekin «sumindurik» daude eta «hezkuntza komunitatearen gehiengoak erabaki ahal izatea» eskatzen dute.




**Zuntz optikoa Urdazubian eta Zugarramurdin.** Adamo enpresak martxo hasieran aktibatuko du bere sarea Urdazubian eta Zugarramurdin. Gisa horretara, konexioa 1 MBekoa izatetik 500 MBkoa izatera pasako da Urdazubiko 170 etxebizitzetan eta Zugarramurdiko 35etan. Irudian Iñaki Ariztia eta Evaristo Mentaberri Urdazubi eta Zugarramurdiko alkateak Orena eta Adamoko ordezkariak.

# PLAZAN BAZAN



## BAKOITZARI BEREA

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



ARBENDOLA

APATXAK



BARRENGORRIAK

ASKA




ERKAINA

IGITAIA

JOAREA

JAREGIN



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eu/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak)










## ZAZPIKOA

Aurki itzazu bi irudi haven artean dauden aldeak. Zazpi dira guztira.



## ITZALA

Hona hemen Garazi, oreka galdu eta egundoko muturrekoa hartu baino lehen. Aurki ezazu bere itzal zuzena.





**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**798** zenbakiko irabazleak >



**ZOZKETAK**

**Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**  
Andone Salbarredi Azurmendi | LEITZA

**Buatxabal - Kamiseta bat**  
Juan Bautista Irigoien Otxandorena | DONEZTEBE

**Salting Iruñea - Bi sarrera**  
Kontxi Agerrebere Iturralde | ZIGA

**Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat**  
Daniel Beristain Bereau | ZARAUZ

**BKZ abentura - Sarrera bat**  
Iraide Sagardia Amiano | ANOTZ

**Arkupe gozotegia - Lote bat**  
M<sup>a</sup> Jesus Telletxea Irazabal | BERA

**Elkar - Liburu bat**  
Kristina Goñi Etxenike | LEKAROZ

**Elkar - Liburu bat**  
Ainhoa Gutierrez Garcia | IGANTZI

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Bi sarrera

**ONDDO TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**SALTING IRUÑEA**

[www.saltingcenters.com](http://www.saltingcenters.com)



Bi sarrera

**TABERNA EDARIAK**

[www.tabernaedariak.eus](http://www.tabernaedariak.eus)



Lote bat

**MARTIKO**

[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



Lote bat

**Galaxy Park**

[www.galaxypark.eus](http://www.galaxypark.eus)



Bi sarrera

**LI  
BU  
RU  
AK**



• Letren jolaslekuan



• Hanka, moko eta buztan

**ikasElkar**

[www.ikasElkar.eus](http://www.ikasElkar.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.katxiporreta.eus](http://www.katxiporreta.eus)



[www.manuelaariztela.com](http://www.manuelaariztela.com)